

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko maiatzaren 23a / 541. zenbakia

IZAR BERRIAK

BERGARA HIRIKO
FINALAK
MARTITZENEAN



Julen Retegi eta
Iker Arretxe,
Julian Retegiren eta
Fernando Arretxeren
semeak

HAUTESKUNDEAK: PROGRAMAK BANAN-BANAN/8 • BINGEN DE PEDRO: ERAKUSKETA ESLOVENIAN/14

AZALA: IÑAKI ITURBE / JATORRIZKO ARGAZKIA: EDU MENDIBIL



Ainhoa Larrañaga Juan Martín Elexpuru Martin Etxeberria Mikel Etxaniz Libe Txintxurreta Iñigo Iñurrategi Amaia Zabaleta Rafa Sanchez



Jose Angel Amasorrain Nerea Lazpiur Justina Elexpuru Aintzane Arana Edurne Arenaza Peru Sagarna Edurne Barrutia



Bergara aldatzeko sasoia da

Taldelana, partaidetza, alternatiba, gertutasuna, aldaketa, gardentasuna

Lizarra Garazi da bidea

*Elkarrizketa
Suetena
Autodeterminazioa*

*Pertsona guztiak,
proiektu guztiak
eta ideia guztiak.*



*Boto
arduratsua*

Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



**HORMA-
ARMAIRU
AUKERA
ZABALA**

**Eta mota
guztietako
ateak.
Informa zaitez!**



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

**Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa**



**AZKARATE
AROTZEGIA**

Telleria, 19 B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
ARETXABALETA
Tel.: 943 77 01 24




ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka, 4 behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



ATREBENTZIAEZPADA/ Ze eskatuko zontsake alkate berrixari?



TOMAS ATORRASAGASTI
77 urte

Behintzat, oin arte moduan segitzeko, eta ahal dan onduen egitteko gauzak. Faltan gauza asko dare herrixan, baiña danera ezin da aillegau. Konformatzen naiz oin arte moduan.



GEMA OIANGUREN
35 urte

Umiekin lotutako gauzak; neguan egoteko leku bat, parkian argixa jartzia eta iturriza konpontzia... Eta horretaz aparte, aurtengo udan 2 urteko umiendako ez dabe udako jolasik jarri.



RAKEL ALONSO
16 urte

Batez be, gaztiekin lotutako gauzak aipatuko nittuzke: alde batetik, gaztetxian kudeaketie gaztiei lagatzeko; eta, bestetik, musika ensaietako lokal gehixago, oso gutxi dare-eta.



JOSEPI GILLEGI
64 urte

Kaliak garbixak edukitze-ko, eta ondo ez daren gauzak konpontzeko. Domeketan, batez be, nahiko zikin egoten die herriko kaliak. Eta horretaz aparte, dane-kin ondo konpontzeko.



JOSE MARI MUJIKA
46 urte

Ez dakit, ba... Oingo beste egittia, behintzat, bai. Oinguak egin daben beste egittia. Gauza konkretuaguetan sartuta, gaztiak konpontzeko hartzia eskatuko notsake.



JUAN PEDRO MURILLO
66 urte

Nik lorategi gehixago egittia eskatuko notsake. Eta horretaz aparte, aparkaleku gehixago egittia be bai. Hori gutxienez. Gaiñerako gauzak ondo dabela pentsatzen jat.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK BIDEGORRIKO KALTEEN EGILEEI Oxirondoko azokatik Ertzaintzaren komisariara doan bidegorri zatian hainbat kalte eragin dituzte azken egunotan. Bidegorri zati horretan farolak jarri berri dituzte eta, Udaleko iturrien arabera, zenbaitzuek faroletako tulipak edo pantailak puskatzeko ohitura hartu dute. Egun gutxiren barruan horrelako hamabost apurtu dituzte. /E.M.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK / 6

KIROLAK / 10

KULTURA / 14

Obretan San Martzialen

Lanak amaitzeaz daude, eta erreka kanalizatu eta kantina eta landa konpondu dituzte, besteak beste.

Euskadiko Selekzioan

Ander García eta Antxon Hernández, infantil mailako Euskadiko saskibaloitaldean.

Bingen De Pedro pintorea

Ekainean erakusketak irekiko du Eslovenian. Horren gaineko elkarrizketa jaso dugu.

ASTEKODATUA

29

GRADUKO TEMPERATURA IZAN GENUEN DOMEKAN

Luis Mari Agirrek jasotako datuen arabera, 29 gradu izan genituen domekan Bergaran. Udako tenperatura benetan. Hala ere, martitzenean 16 gradura jaitsi zen termometroa.

BESTEKE SANA

“

Antibiotikoen Dosi Zehatzen Plan pilotuan parte hartzeak lan handiagoa ekarriko digu datozen sei hilabeteetan. Botika horiendako eskaera bereziak egin behar ditugu, eta biltegian ere tokia behar da guztia gordetzeko. Gainera, eskuz prestatu beharko dugu eskari bakoitza. Eta hori guztia kosterik gehitu gabe. Are gehiago, gure onurak gutxitu egiten dira. **LOREA JULDAIN / Farmazeutikoa 'El Diario Vasco' / 03-05-15**

“

AuBri botoa ematea balizko ekintza da. Benetan ustela litzateke espainolismoak jango gaituela pentsatu eta izu horretan oinarrituz ezker abertzaleari uko egitea alarmismo faltsu baten izenean. **ANDRES OSA / Filosofian lizentziatua 'Gara' / 03-05-20**

BERAIEK DIÑOE/ Andres Osa "Sakona"



Itxaropena

Lerro hauek, beharbada, hauteskundeak egin ondoren zuenganatuko zaizkizue. Gaurkotasuna duen gairik bada baina egoera politikoa bultzatuz gai bateri buruz jardutera behartuta gaude, egungo egoera tamalgarriari buruz, hain zuzen.

Hitzak aurkitu ezinezko gabilta egungo egoera larria eta lotsagarria azaltzeko unean. Hitzak labur dira.

Euskal Herri osoan zehar milaka pertsonak, Frantziako Iraultzak lortu zuen eskubidea ezin izan dute erabili: *Pertsona bat, boto bat*. Euskal Herrian zehar, biztanleriaren zati handi bat, eskubide hori gabe gelditu da. Egoera horren aurrean auzoko "abertzale zentzudunak" isilik, bestaldera begira. Aldian aldiko, norbait engainatu nahian edo ilegalizazioaz "ondo ez dago" esaten duten bitartean barruko poza, mahaipera erortzen diren ogi-apurrak edo ogi kozkorak batzen egin ahalak egiten,

euren ore-mahaia hornitzeko irrikan. Jarrera lotsagarria, makurra. Arrasaten bertan, urrutira joan gabe, milaka pertsonen eskubideak guztiz urratuak eta zapuztuak izan dira.

Hala ere, mundua ez da amaitu eta bizitzak aurrera jarraitzen du. Sortu den "legalitatea" betearazi nahi izango da. Udaletxeetan eta Aldundietan, sartu, sartuko dira legeak aipatu dituen zenbait ordezkari baina gaixotasuna bere gorputzean darama eta hori

horrela den bitartean osasunik ez dago, ondoeza areagotzen joango baita. Epe laburrean edo ertainean egin denaren garbua edo damua izango du batek baino gehiagok.

Iraken inbasioari buruz esaten genuen, gerra ondoren ondorioak izango zirela, "Pako erreba jekin" etorriko zela eta etorri badator. Beste buruan ez al dugu eskarmenturik hartu behar? Itxaropenak ez du mugarik.

"Milaka lagunek Frantziako Iraultzak lortu zuen eskubidea ezingo dute erabili: pertsona bat, boto bat"

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrñaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zehatzak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 23
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63

ZAPATUA, 24
MOZOS, San Pedro 4. 943 76 12 15

DOMEKA, 25
MOZOS, San Pedro 4. 943 76 12 15

ASTELEHENA, 26
CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74

MARTITZENA, 27
PUY, Barrenkalea 25. 943 76 16 87

EGUAZTENA, 28
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05

EGUENA, 29
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Anbulatorioa (banda) 943 76 24 40

Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06

Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46

Ertzaintza 943 76 53 40

Osasun etxea 943 76 24 40

Asepeyo 943 76 16 43

Pakea 943 76 13 49

Angiozarko medikua 943 78 90 27

Antzuolako medikua 943 76 62 23

Odol emaleak 943 76 16 24

Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

GARRAIOAK

Taxiak 943 76 19 50

UDALA

Bergarako Udaletxea 943 77 91 00

Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46

Udal Artxiboa 943 77 91 32

Igerilekuak 943 76 20 51

Kultura etxea 943 77 91 58

Liburutegia 943 77 91 62

Kiroldegia 943 76 56 41

Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 92

Erregistroa 943 76 13 15

Jardun 943 76 36 61

Idolaz 943 76 65 08

Erretiratuen etxea, Bergara 943 76 21 40

Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71

Postetxea 943 76 26 85

Bedelkar 943 76 04 68

Akulu AEK 943 76 05 18

Udal Euskaltegia 943 76 44 53

Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

San Pedro	Labegarieta
Domekak:	Domekak: 11:00.
09:30, 12:30.	San Lorentzo
Zapatuak eta	Zapatuak: 20:00.
lanegunak:	Angiozar
19:00.	Domekak: 11:30.
Sierbak	Moja Zaharrik
Lanegunak: 19:15.	Lanegunak: 09:00.
Zapatuak:	Zapatuak: 11:00.
19:00.	Mizpirualde
Domekak:	Lanegunak: 11:45.
11:30, 13:00.	Zapatuak: 17:30.
Osintxu	Antzuola
Domekak: 12:30.	Domekak:
Zapatuak: 19:00.	09:00, 11:30.
Elosu	Zapatuak eta
Domekak: 10:30.	lanegunak: 19:30.
Ubera	Uzarraga
Domekak: 10:30.	Domekak: 10:00.
San Juan	Elgeta
Domekak: 11:00.	Lanegunak: 09:00.
Elorregi	Zapatuak: 19:30.
Domekak: 10:30.	Domekak: 12:00.

URTE-MEZAK

Santa Marina (Sierbetan)
Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean.

San Pedro
Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

1968AN JAIOTAKOAK
1968an jaiotako enafaria bihar, zapatua, Batzokian, 22:00etan. Ganbara tabernan elkartuko dira, 19:30ean.

1942AN JAIOTAKOAK
1942an jaiotako enafaria maiatzaren 31n Azpeitxi jatetxean, 21:00etan. Aurretik meza egongo da, Sierbetan, 19:00etan. Izenematea (15 euro) Mizpildin, Edelen edo Azpeitxin.

HELDUEN ESKOLA
Helduen Heziketa Iraunkorreko Eskolak datorren ikasturterako aurrematrikula epea zabaldu du. Interesatuak maiatzaren 30era arte jo dezakete Irizar jauregiko bigarren solairura. Argibideak 943 76 44 52 telefono zenbakian.

IKASTAROAK KZGUNEAN
KZGuneak herritar guztiendako Informatika ikastaroak eskaintzen ditu. Besteak beste, Interneten nabigatzeko eta prestakuntzako ikastaroak antolatu dituzte. Era berean, errelebuka lan egiten dutenei zuzendutako ikastaroa egongo da ekainaren 2tik 17ra. Argibide zabalagoak Irizar jauregiko (Barrenkalea, 33) lehen solairuan edo 943 76 73 24 telefono zenbakian.

JARDUNEN AGENDA

ASTE BUKAERAKO JARDUERAK
Bihar, zapatua, Olinpiadak egongo dira erretiratuen egoitzan, Boni Laskurain kalean, 16:00etan. Bestalde, Txiskrilabi taldekoendako jolasak egongo dira bihar Udal Euskaltegian, 16:00etatik 20:00etara. Eta Arrizuri domekan egongo da zabalik Txapligu taldekoendako, 16:00etatik 20:00etara.

URBANOEN ORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Sorraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarretik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugerza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN

Aranzadi Ikastolak sare pribatuaren alde egin zuen

Aranzadi Ikastolak sare pribatuaren integraztearen aldeko apustua egin zuen 1993ko maiatzaren 19an. Novedades aretoan egindako batzar orokorrean 403 guraso batu ziren: haietatik 235ek pribatuaren bidea aukeratu zuten bozketan eta beste 161 publikoaren alde azaldu ziren.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Eskekua”



Eskalea.
—Makiña bat eskeko ibiltzen zan sasoi baten etxeik etxe.

GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA
Eguaztena, 14 **5 °C**

MAXIMOA
Domeka, 18 **29 °C**

ASTEKO EURIA (l/m²)
3,9 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 14	17 °C	5 °C	— l/m ²
Eguena, 15	24 °C	6 °C	— l/m ²
Egubakoitza, 16	19 °C	8 °C	1 l/m ²
Zapatua, 17	27 °C	9 °C	— l/m ²
Domeka, 18	29 °C	9 °C	— l/m ²
Astelehena, 19	23 °C	10 °C	3,8 l/m ²
Martitzena, 20	16 °C	11 °C	— l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

ASTEKOFILMAK

‘X-MEN 2’

ZUZENDARIA: BRYAN SINGER. AKTOAREK: PATRICK STEWART, HUGH JACKMAN.

HARIA. Mutanteak filmaren lehengo zatia amaitu zen lekuan daude. AEBetako presidentea hiltzen saiatu izana leporatuko diete mutantei, Strykerrek bideratutako kanpainaren ostean.

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean (ik. eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●



‘GENERACION ROBADA’

ZUZENDARIA: PHILIP NOYCE. AKTOAREK: EVERLYN SAMPI, TIANNA SANBURY.

HARIA. Molly Craig neska aborigenaren istorioa kontatzen da film honetan. Australiako Gobernuak ume aborigenak hezteko sistemari aurre eginez, Mollyk bidaia luze epikoa egingo du auzo parekin eta lehengusuarekin.

TOKIA ETA ORDUA. Eguenean, hilaren 29an, 20:00etan. Zineklubeko emanaldia.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

**INFERNUKUA
TABERNA**

Masterreka 23. BERGARA. 943 76 18 49

**ETXAGI
JATETXEA**

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12



PROFESIONAL *liberalen* GIDA

ABOKATUAK

RAFAEL ARANBURU

Irizar 5. 943 76 10 81

MILAGROS LARRAÑAGA

Simon Arrieta 1. 943 76 16 28

BERNARDINO MAIZTEGI

Irizar 5. 943 7610 81

ANA MOZOS

San Pedro 6. 943 76 45 52

JUAN ANTONIO SIERRA

Irizar 2. 943 76 03 35

UGALDE & ASOCIADOS

Bidekurutzeta 27. 943 76 11 57

Faxa 943 76 03 02

INJINERUTZA

ANGEL ARIZABAETA PADILLA

Espoloia 10. 943 76 59 18

TEKNIBER

Urarte 18. 943 76 53 19

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

Easo 57, 3-esk. (DONOSTIA).

943 45 27 26 / 656 41 55 49

APAREJADOREAK

JOSE INAZIO MONDRAGON

Zurradero 8. 943 76 00 44

GESTORIAK

EGUREN

Irala 3. 943 76 21 65

AHOLKULARITZA

AIERDI AHOLKULARITZA

Artekalea 1. 943 76 03 50

ALFIS

Ibargarai 22. 943 76 48 48

TBG AHOLKULARITZA

Matxiategi 36. 943 76 90 83

ZUHURKI SL

Bidekurutzeta 46. 943 76 33 53

ARKITEKTUAK

JON MUNIATEGIANDIKOETXEA

Barrenkalea 22. 687 73 75 67

JESUS LASKURAIN PÉREZ

Zurradero 4. 943 76 53 53

HIRIGINTZA/ Bost lan nagusi egin dituzte: erreka kanalizatu eta bidea, landa, kantina eta bolatokia konpondu

San Martzialgo eremua egokitzen amaitzeko azken ukituak falta dira

MONIKA BELASTEGI

Udaleko iturrien esanetan, azkeneko ukituak besterik ez da falta San Martzialgo eremua egokitzeko lanak amaitzeko. Artzamendi Eraikuntzak enpresak dihardu lanok egiten eta guztira 18.000 euro inguruko aurrekontua dute.

Orain dela bi aste hasi ziren San Martzialgo eremua egokitzeko lanak. Apirilaren hasieran hura egokitzeko erabakia hartu zuen udalbatzak, eta Artzamendi Eraikuntzak enpresak dihardu egokitze lanok egiten. Horrez gainera, egun gutxi barru lanak amaituta egongo direla aurreratu du Bergarako Udalak.

Bost dira San Martzialen egiten diharduten lan nagusiak: alde batetik, ermita ostetik datorren errekatxoak errepidean eragiten dituen arazoak ekidin nahi dituzte. Izan ere, hustubidea zikintzen denean urak gainezka egiten du eta bidean pitzadurak eragiten ditu. Horretarako, errekatxoa kanalizatu egin dute hodien bidez.

Beste aldetik, bidea ere konpondu egin dute ermita pareko landan hasi eta beheko bidegurutzeraino.

LANDAN AUTORIK ETA MOTORIK EZ SARTZEKO HESIA JARRI DUTE

Horrez gain, landa ere txukundu dute eta belar berria erein. Gainera, landara autoz edo motoz ez sartzeko neurriak hartu dituzte: zurez eta alanbre ekologikoz inguratu dute. San Martzial egunera arte hala egongo dela aurreratu dute Udaletik. Dena dela, erabaki barik dago hesia behin betiko jarriko duten edo ez. Udal iturrien esanetan, herritarrok jabetu



MONIKA BELASTEGI

Landaren inguruan behin-behineko hesia jarri dute, autorik eta motorik ez sartzeko.

beharko ginateke ibilgailurik gabeko gunea izan beharko litza-tekeela San Martzial.

Bestalde, kantina ere konpondu dute. Iaz teilatu berria egin zioten eta orain zorua, sarrerako

atea eta leihoak konpondu dizkiote. Horrez gainera, kantinaren atzeko aldean metro batzuk irabazi dituzte edarien kutzak eta kantinako bestelako gaiak lagartzeko.

Azkenik, bolatokia ere konpondu egingo dute. Egur berria jarri diote dagoeneko, baina bolaren bidetxoa konpontzeko dago oraindik. Lan hori Felix Astigarraga osintxuarrak egingo du.

Udalaren iritziz, herritarrok jabetu beharko ginateke ibilgailurik gabeko gunea dela

Autorik eta motorik ez sartzeko behin-behineko hesia jarri dute landa inguratzen

Kantina ere konpondu dute: zorua, leihoak eta atea. Iaz teilatua berritu zuten

Euskara Biziberritzeko Plana aurkeztu dute

MONIKA BELASTEGI

Aurreko astelehenean udalbatzak onartu eta gero, egubakoitzean aurkeztu zuten Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia. Ekitaldian honako hauek egon ziren: Victoriano Gallastegi alkatea, Lore Leanizbarrutia Diputazioko Euskara Sustatzeko idazkari nagusia eta Patxi Goenaga Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea. Leanizbarrutiak eta Goenagak esan zuten Bergara beti izan dela aitzindari euskara sustatzen; Udal zoriondu zuten, Plana garatu eta onartzen lehena izan delako.

2003-07 eperako plan estrategikoa da, eta haren bitartez euskararen normalizazioan orain arte egindako lana sakondu eta indartu nahi dute. Helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren neurriak hartzea, eta hiru helburu estrategiko finkatu dituzte: euskara belaunaldiz belaunaldi transmititzea; euskara erabiltzeko esparruak bermatzea eta pertsona bakoitzaren euskara aberastea.

Hori hala izateko, 14 esparrutarako ekintzak proposatzen ditu planak: irakaskuntzan, familian eta administrazioan, esaterako.



Patxi Goenagak, Victoriano Gallastegi eta Lore Leanizbarrutiak aurkeztu zuten Plana aurreko egubakoitzean.

LABUR

Ondasun higiezinaren gaineko Zerga ordaintzeko epea

Udalak herritarrei jakinarazi nahi die ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaintzeko epea zabalik dagoela. Borondatezko epea ekainaren 30era bitartean da eta epe hori bukatu ondoren, errekaratu kobratuko da.

Ordaintzeko modua eta lekua honakoak dira: ordainagiriaren ordainketa banketxeren baten helbideratuta duten zergadunei, banketxeren beraren bitartez bidali eta kobratuko zaie. Ordainagiriak helbideratu barik dituzten zergadunen kasuan, berriz, ondorengo egunetan euren etxean jasoko dute ordainketa egiteko beharko duten agiria. Agiri horrekin edozein banketxetik edo Udaleko bulegoetatik pasa daiteke ordainketa egiteko.

Era berean, agiri hori maiatzaren 31 baino lehen jasotzen ez bada edo azalpenen baten beharra izanez gero, Kontu-hartzailetzako bulegoetatik pasa daiteke.

Hainbat ekitaldi asteburuan, Bergara Aurrerak antolatuta

Bergara Aurrera herri plaza-formak hainbat ekitaldi eta mobilizazio antolatu ditu asteburu honetarako: gaur, egubakoitza, mitin-jaialdia egongo da San Martin plazan, 20:30ean. 23:00etan, berriz, musika emanaldia egongo da Pol-Pol tabernan: DJ Bull-ekin reggae, punk eta ska musika egongo da.

Horrez gainera, bihar, zapatua, bizikleta ibilaldia antolatu dute, 18:30ean, herrirako kaleetan barrena.

Urteaga 29ko bizilagunek kezkatuta jarraitzen dute harrobia dela-eta

MONIKA BELASTEGI

Adituek egindako txostenak Urteaga 29ko eraikina arrisku-tik kanpo dagoela esan arren, kezkatuta jarraitzen dute hango bost familiek. Etxe osteko eustormaren pitzadura zabaldu egin dela diote.

Hilaren 12a ezkerreko etxetik kanpo egon ondoren, aurreko egubakoitzean izan zuten Urteaga 29ko bizilagunek etxera bueltatzeko aukera. Hilaren 10ean Urteagako harrobi zaharrean lur eta harri jausia izan zen. Hori horrela eta segurtasuna bermatzeko askoz, bizilagunak etxetik atera eta errepidea itxi egin zuen Udalak.

Ikerlur enpresak egindako txostenak zera dio: "Arrisku garbia dago mendi hegala guztiz erortzeko, eta, horren ondorioz, finkatze proiektua berehala egitea komeni da. Bitartean errepideak itxita jarraituko du".

Hala ere, Urteaga 29ko etxearen kasuan zera dio: "Erorketa eremutik hurbil dago, baina eroritako masatik kanpora".

Bizilagunak, dena dela, ez dauke batere lasai. Bizilagun batek, Miguel Angel Lozanok, zera esan zigun eguaztenean: "Txostenak



MONIKA BELASTEGI

Harrobi ondoan biribilunea egiteak eta trenbideko lanek ez dute eragin erorketan.

arriskutik kanpo gaudela esan arren, kezkatuta gaude. Etxe osteko eustormaren pitzadura asko zabaldu da, eta euria noiz egingo duen beldur gara, lurra busti

eta beste lur-jausi mardul bat noiz gertatuko zain". Bestalde, abokatu bati laguntza eskatu diote azaldu du, "besteak beste, erantzukizuna nori eskatu jakiteko".



Segurtasun hesia Bideberri

Aurten ere segurtasun hesia jarriko dute Bideberri, Mendekoste jaietarako. Dagoeneko hasi dira jartzen.

Kioskoan hasi eta Bideberri pareraino jarriko dute hesia, azken urteotan egin duten moduan, eta helburua da segurtasuna bermatzea, hau da, ibaira inor ez erortzea.

Jartzen hasi diren hesia iaz erosi zuen Bergarako Udalak. Aurrez alokatu egiten zuen hesia, baina iaz erostea erabaki zuen, Bideberriko urbanizazio proiektua egin artean erabiltzeko.

'Egunkaria'-ren proiektu berria aurkeztu du Fermin Lazkanok

MONIKA BELASTEGI

Eguaztenean aurkeztu zuten Miguel Altunan. Fermin Lazkanok *Egunkaria*-ko gerente ohiak eman zituen azalpenak, eta ekaineko bigarren hamabostaldirako kalean egongo dela adierazi zuen.

Proiektu berria abiarazteko lehen urratsa Euskarazko Komunikazio Taldea SA sortzea izan dela azaldu zuen, eta *Egunkaria*-ko 151 langilek egindako 60.350 euroko ekarpenarekin sortu dutela gehitu zuen. Dena dela, kopuru hori abiapuntua baino ez dela esan zuen, eta helburua kapital hori handitzea dela. Horretara-

ko ekin diote *Berria berri* akzio salmenta kanpainari. 300 eta 50 euroko akzioak daude salgai.

Kapitala handitzeko bidean herri bakoitzean jaso nahiko luketen diru kopurua zehaztu dute. Bergaran 48.240 euro jaso nahi dituzte eta horretarako hiru lekutan jarri dituzte eskuragarri akzioak: Jardunen, Akulu AEKn eta *Egunkaria*-ko herri batzordeak zapatu goizetan San Martin plazan jartzen duen mahaian.

Ekainean kaleratuko dutena oinarrizko produktua izango dela azaldu zuen Lazkanok: ohiko sailak eta bi edo hiru gehigarri izango ditu. Eta udazkenean eskaintza gehigarri berriei osatuko dutela azpimarratu zuen.



MONIKA BELASTEGI

Egunkaria-ko gerente ohi Fermin Lazkanok bergararrak eman zituen azalpenak.

LABUR

Agintaldiko azkeneko osoko bilkura egingo dute gaur, egubakoitza, 19:00etan

Agintaldiko azken osoko bilkura egingo du gaur udalbatzak. Hamaika puntuko gai zerrenda bozkatuko dute; besteak beste, Sozialista Abertzaleen mozioa. Mozioak eskatzen du Francisco Franco Bahamonderi Bergarako Oherezko Alkate izaera kentzea. Izan ere, udalbatzak hala izendatu zuen 1939ko maiatzaren 3an.

Sukalderako armairuak eta gas sukaldeak jaso nahi ditu Caritas-ek familia batzuek

Caritas-ek sukalderako armairuak eta gas sukaldeak behar ditu herriko hainbat familiarendako. Esandako gauzak emateko moduan daudenak Caritas-ekin jar daitezke harremanetan, goizez, 943 76 72 77 telefono zenbakian.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13

AGOITZ
tapiz
denda

Leizariako
San Lorentzo, 25
BERGARA
Tel.: 649 112 675

Plater
konbinatuak
Oilasko erreak
eramateko



BOKATEGIA
Simon Arrieta plaza 2A behe ezkerre.
Tf. 943 76 71 19

Zapatua 24
**DISKO
FESTA**

gaverditik
aurrera

dj Pepi

M25 / BERGARARAKO EGITASMOAK



EAJ-EA

Auditoria, kirolgune berria eta babestutako etxebizitzak, lehentasunak

► EKONOMIA ETA HAZIENDA

Proiektu ekonomikoak sustatzeko eta lanpostuak sortzeko, herrian dauden baliabide eta gaitasunak indartzeari lehentasuna ematen diote. Era berean, komunikazio sistema, ekipamendu sozialak eta zerbitzu komertzial eta finantzarioak oinarritzeko dira inbertsio berriak sustatzeko.

► GOBERNAZIOA

EAEko administrazio orokorrek lankidetzan jardutea beharrezko ikusten dute. Eta Udalaren eta herritarren arteko harremanetan teknologia berrien garrantzia nabarmentzen dute.

► HIRIGINTZA ETA INGURUMENA

Besteak beste, honako hauek dira premiazko gaiak EAJ/EArendako: arau subsidiarioak berrikustea, eskola profesional berria egitea Mayc lantegiaren ondoan, inguruko garraiorako logistika proiektua garatzea Ipiñarrin, babes ofizialeko etxebizitzak egitea Angiozarren, Osintxun, San Antonion, Ozaetan eta Mayc ondoan eta Arrizuriagako parke publikoaren proiektua garatzea.

► GIZARTE ONGIZATEA ETA OSASUNA

Zerbitzu guztiak bateratzea eta herritarrei hurbiltzea proposatzen dute. Parte-hartzea bultzatuz, kudeaketaren demokratizazioaren alde egiten dute. Ongizatearekin lotutako zerbitzuen instituzionalizazioa defenditzen dute, gaur egun duten bazter izaera behin betiko ezabatzeko.

► AUZOAK

Auzoetarako bideak egitea eta hobetzea, eta urarekin eta saneamenduarekin lotutako ekimenak egitea. Nekazaritza edo baserri-giroarekin zerikusia duten ekimenak bultzatu. Gure ondarea ahal denean herritarren erabilera egokitu: San Martzialgo proiektua, esaterako.

► EUSKARA, HEZKUNTZA ETA ONDAREA

Euskara Biziberritzeko Plana garatzea eta hezkuntza mailan sortzen diren beharrei erantzutea. Udal Liburutegia Arrizuriagan kokatzea eta Turismo Bulegoa urte osoan zabalik izatea proposatzen dute.

► KIROLAK

Agorrosingo kirolgune berria egitea da ekimen nagusia. Kirol instalazioak aprobetxatzeko bideak jorratzea. Hirugarren adinekoendako jarduerak bultzatzea beharrezkotzat jotzen dute.

► KULTURA TALDEAK, GAZTERIA ETA JAIK

Auditoria eta museoa Seminarioan kokatzeko proiektuak du lehentasuna. Gazteendako kartzela zaharra egokitzea, Zabalotegiko aretoa berritzea eta Arostegi Etxera erakusketa eta hitzaldietarako bideratzeko asmoa dute, besteak beste.



BERGARA AURRERA

Herri kontsultak eta erreferendumak, ezinbestekoak

► GESTIOA ETA FUNTZIONAMENDUA

Diote azkeneko agintaldietan osoko bilkurak ez direla eztabaidaguneak izan, gobernutik eztabaidari uko egin zaiolako. Osoko bilkurak eztabaidagune nagusia izan beharko luke, bai zinegotzien artekoa, baita herritarrei aukera emanez ere.

Herri kontsultak eta erreferendumak ezinbestekotzat jotzen dituzte. Hauteskundeetara aurkezteko aukera izan balute, herriaren ahotsa entzuteko tresnak erabiltzeko konpromisoa hartuko zuketzen.

► SOZIOEKONOMIA-HIRIGINTZA

Etxebizitzetarako lurrak bukatu egin direla diote, eta babes ofizialeko etxebizitzak bultzatu behar direla, bai alokairuan bai jabegoan. Hutsik dauden etxeak alokairuan jartzeko udal bulegoa zabaldu behar dela diote. Bestalde, hirigune historikoaren plan berezia egin behar dela uste dute, eta Zubiaurrek, Martokok, Mugertzak eta Santa Marina inguruak dituzten hirigintza arazoei irtenbidea eman behar zaiela.

Udal zerbitzuen pribatizazio politikarekin bukatu behar dela uste dute.

► GIZARTE ONGIZATEA

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bermatzeko benetako konpromisoak eta politika eraginkorra bultzatu behar dira. Gizartearen laguntza behar dutenen kopurua gora doan neurrian, Udalak benetako interbentzioak egin behar ditu.

Presoen senideei laguntzeko programarekin jarraitu behar da, baina horrekin batera presoen jarraipena egiteko taldea sortzea beharrezkoa da.

► INGURUMENA-AUZOAK

Pendiente dauden hainbat gairi eutsi behar zaiela uste dute: ingurumen/nekazaritza/baso sektorearen ikerketa sozio-ekonomikoa, parkeen plangintza integrala, San Martzial ingururako plana eta baliabide energetikoak.

► HEZKUNTZA

Hezkuntza batzordea eta, batez ere, Eskola Kontseilua berpiztu beharra dago. Udalak, Hezkuntza Zikloetan ere, ikaskuntza osoa euskaraz egin ahal izateko bideak jorratu behar ditu.

► KIROLAK

Igerilekuekin eraman den politika penagarria dela diote: ez dago argi zelan egin behar zaion aurre obrari. Kirol eremu osoa kontuan hartu eta proiektu berri bati heltzea da irtenbidea, euren ustez.

► KULTURA

Kultura batzordea Jai batzordea izatera mugatzen dela diote. Azpiegitura kulturaletan dauden mugak eta modu prekarioan edo erabili gabe dauden eraikinak ikusita, irtenbide globalak aztertu behar dira. Hori Kultura batzordeari ere badagokio.



PSE-EE

Kontsumitzaileendako erreklamazio bulegoaren aldekoak dira

► APARKALEKUAK

Gutziz beharrezkoak dira herrian, bai lur azpikoak baita kanpokoak ere. Era berean, aparkaleku kopurua gehitzeko Seminarioaren jabetza arazoa konpontzea beharrezkoa dela uste dute, eta behin lortuta -ez da horren zaila, euren iritziz-, erabilera zabalagoa emateko aukera izango genukeela diote: hirigintza proiektua egin genezakeela, azken baten, proiektu hori aparkalekuen beharretara ere egokituta.

► HIRIGINTZA-ETXEBIZITZAK

Hiri-lurrak bultzatu eta gehitu beharra dagoela uste dute; horrela, babestutako etxebizitzak eta alokairuzkoak bultzatzeko. Modu horretan, gazteriak dituen beharrei erantzuteko bideak jarriko dituztela diote.

Etxebide Plana asko hobe daiteke, baina Eusko Jaurlaritzak eztabaidari uko egiten dionez, ezin izan dute ezer eztabaidatu.

► OSASUNA ETA INGURUMENA

Anbulatorioan falta diren osasun zerbitzuak eta ingurumen zerbitzuak osatu beharra dagoela uste dute.

Komun publikoen beharra dago herrian. Azaldu dutenez, hamabi urte baino gehiago dira herriko hainbat gunetan komun publikoak jartzeko eskaria egiten dihardutela. Baina berriak jarri beharrean, zeuden apurrak kendu dituztelako kexu dira.

► OINEZKOENDAKO BIDEAK

Bidekurutzeta, San Martin plaza eta Barrenkalea oinezkoendako kale bihurtu beharra dagoela uste dute.

► HILERRIA

Dagoeneko hilerri berria izan beharko genukeela uste dute: ehorzketak San Joxepe inguruan egin beharko lirarteke dagoeneko, hilerria han kokatzea aztertu baitzen aspaldi.

► KONTSUMOIA

Udalak kontsumitzailea defendatu beharko lukeela diote. Horretarako, prebentzio kanpainak egin beharko lirartekeela, Kontsumitzaileen Elkarteekin elkarkidetzat hitzarmenak sinatu beharko lirartekeela, eta erreklamazio bulegoa zabaldu.

Eskualdean, berriz, janaria aztertzekeko laborategia zabaltzea negoziatu beharko litzateke gainerako Udalekin.

► DROGAMENPEKOTASUNA

1984. urtean abian jarri zuten programarekin jarraituko dutela azaldu dute, batzorde mistoa osatu zuteneko, hain justu ere; horrez gainera, Gazte Programarekin ere jarraituko dutela azaldu dute.



PP

Enplegua sortzeko eta babestutako etxebizitzak egiteko konpromisoa

► GIZARTE ONGIZATEA

Familiarekiko eta adinekoen bizi kalitatea hobetzeko konpromisoa hartzen dute. Horrela, besteak beste, honako proposamenak egiten dituzte: familia ugarien aldeko politikak ezartzea; drogen aurkako orientazio kanpainak egitea familiei laguntzeko; dependentzia egoera larrian dauden pertsonen laguntzeko programak abian jartzea.

► GAZTEAK

Lan Heziketako programak bultzatuko dituzte; tolerantziaren, elkartasunaren eta zeregin publikoetan parte hartzearen gaineko sentsibilizazio ekimenak bultzatuko dituzte gazteen artean. Haurdunaldien, anorexia eta bulimiaren eta gazteen osasunarekin lotutako hainbat gairen gaineko informazio programak bultzatuko dituzte.

► KIROLAK

Eskola arteko txapelketak indartzen saiatuko dira; Guraso Elkarteekin lankidetzan, eskolatik kanpo ere kirol jarduerak bultzatuko dituzte; kirolaren betiko balioak bultzatuko dituzte eta gutxituei eta adinekoei kirola egiteko erraztasunak jarriko dizkiete.

► ENPLEGUA

Batez ere, gazteei, emakumei, gutxituei eta 45 urtetik gorakoei laguntzeko neurriak hartuko dituzte. Ekintzaile berriei laguntasunak eskainiko dizkiete.

► 'PLAN BERDEA'

Herriko biodibertsitateari eusteko neurriak hartuko dituzte, natura gunek areagotuta eta bertako landare eta zuhaitzak landatuta.

► SEGURTASUNA

Segurtasuna bermatzeko eta delinkuentziaren aurka egiteko neurriak hartuko dituzte. Herrian bertan Segurtasun batzordea eratzea proposatzen dute.

► ETXEBIZITZAK

Etxebizitza Plana egitea proposatzen dute, diru sarrera txikien duten gizarteko taldeei erraztasunak emateko eta babestutako etxebizitzak bultzatzeko. Batez ere, errentan hartzeko etxebizitzaren aldeko politika egingo dute.

► KULTURA

Herritarren beharretara egokituko den kultur ekintzak antolatu nahi dituzte. Artista gazteen sormena bultzatzea beharrezkoa dela uste dute eta horretarako herriko kultur taldeei protagonismoa eman nahi diete. Kultur ekintzen antolaketa herritarren parte hartzea ezinbestekoa dela azpimarratzen dute.



IU-EB

Ingurumena, babes ofizialeko etxebizitzak eta enplegua, kezka nagusiak

► GOBERNAZIOA

Euskal gizartearen aniztasuna errespetatuz, demokrazia eta askatasunaren aldeko urratsak emateko foroa izan beharko litzateke Udala. EUDELeK eta Eusko Legebiltzarrak onartutako adierazpenari eutsi nahi dio EBk. Proiektu politiko demokratiko guztiak legezkoak izatea eta herritarrek herriaren gestioan parte hartzea aldarrikatzen dute.

► HIRIA ETA INGURUNE NATURALA

Udalan Ingurumen batzordea sortzeko beharra ikusten dute. Besteak beste, baso ondarea babestea, birziklatzea bultzatzea, berdeguneen eta nekazaritzaren gaineko politikak proposatzea eta lurzorua okupatzeko eskaerak kontrolatzea jasotzen dute euren programan.

► GIZARTE ONGIZATEA ETA OSASUNA

Gizarte Ongizateko benetako estatu bat lortzeko, handituz doan gizarte bazterketaren kontra borrokatzea beharrezko ikusten dute. Udalan prebentzioa eta gizarteratze planak garatzeko asmoa dute. Pobreziari eta gizarte bazterketari aurre egin nahi diete eta bakarrik bizi direnendako etxez etxeko laguntza zabaltzea eta telearma zerbitzua proposatzen dituzte. Osasunari dagokionez, beharrezkoak direnean Mankomunitateak osasun zerbitzu jakin batzuk eskatzea, sendagaien erabilera arrazionala bultzatzea edo sexu programak garatzea aldarrikatzen dute.

► ENPLEGUA

Bergaran langabeziaren gaineko ikerketa sakona egitea eta Udaletik enplegua sustatzeko plan integralak ezartzea proposatzen dute. Helburu sozialeko kooperatibak eta autoenplegurako ekimenak bultzatzearen aldekoak dira.

► ETXEBIZITZA

Funtsezko eskubidea izanik, EBk kezka berezia du etxebizitzaren gaiarekin. Babes ofizialeko etxebizitzak bultzatu nahi dituzte eta etxebizitzak berritzeko laguntzak eta hutsik dauden etxebizitzak alokairua bultzatzeko Udalak bitartekari lanak egitea aldarrikatzen dute. Horretarako Bergaran etxebizitzaren egoera sakon aztertzeke premia ikusten dute.

► HEZKUNTZA

Eskola publikoaren inguruan egituratutako kalitatezko hezkuntza sistema sendotu nahi dute. Epe laburrean eta ertainean herriko hezkuntza beharrak zehaztu beharra dagoela diote.

► KULTURA ETA KIROLAK

Auditorioa egiteko premia eta kultura eskaintza auzoetara zabaltzeko premia ikusten dute eta kirol instalazioak herritarren beharretara egokitu behar direla uste dute.



ARALAR

Mankomunitate mailan arartekoaren figura sortu behar dela uste dute

► UDALA HERRIRA

Herritarra babesik gabe dago administrazioaren aurrean, horregatik Mankomunitate mailan arartekoaren figura sortu behar dela uste dute.

Aurrekontuak urtea hasi aurretik onartu behar dira.

Bergarak dituen baserri eta auzo kopuru handia kontuan izanda, jaramon gutxi egiten zaiela uste dute eta Auzoen batzordea indartzearen aldekoak dira. Baita labrantzako lurak babestearen aldekoak ere.

Gai garrantzitsu eta eztabaidagarrietan herritarrei kontsulta egin behar zaiela uste dute: erreferenduma.

► ETXEBIZITZA

Askorendako arazo nagusia da, batez ere, gazteen-dako. Euren asmoa da, batetik, herrian dauden etxebizitza hutsen errolda egitea eta denon eskura jartzea; bestetik, babes publikoko etxebizitzak bultzatzea, alokatzeko, batez ere, baita Udalaren menpeko alokairu agentzia sortzea ere.

► GIZARTEKO TALDE BAZTERTUAK

Talde baztertuen integrazioa bultzatu behar da. Edozein diskriminazioaren aurka egin behar da: genero, sexu-orientazio, arraza... Behar handien dituzten gizarte sektoreak babestu egin behar dira. Baita gure edadetuendako laguntza zerbitzuak hobetu ere.

► HEZKUNTZA

Ikastetxeen mantenu eta azpiegitura arazoetan inplikazio handiagoa behar da.

► KIROLA

Kirol instalazioak hobetu behar dira. Igerilekuen arazoari konponbide azkarra eman behar zaio eta kirol minoritarioak kontuan hartu behar dira.

► KULTURA

Auditorioa eta zinema izango den aretoa abian jarri behar da. Herriko ondare historiko, artistiko eta kulturala berreskuratu, zaindu eta ezagutzera eman behar da.

► GARRAIOA

Gure herria oso gaizki komunikatuta dago. Autobus zerbitzu hobeak behar ditugula uste dute, hiriburuekin eta inguruko herriekin hobeto komunikatuta egoteko.

Eskualdeko tranbia bultzatuko dute. Zerbitzu ona emango digun tren-sarearen alde daude. AHTRI ezetz biribila: ez dakar onurarik eta kalteak kontaezinak dira.

Oinezkoendako eta txirrindulariendako bidea konpondu eta argiztatu egin behar da; hau da, trenbide zaharra. Auzoetara oinez joateko bide bazterrak prestatu behar dira eta inguruko herrietara bidegorriak egin.

PILOTA

Bergara Hiria Txapelketako finalak izango dira martitzenean Udal Pilotalekuan

22 urtetik azpikoetan, Esnaola-Azagirre eta Retegi-Urrizalki izango dira aurrez aurre eta nagusietan, Eguzkiza-Erauskin eta Martínez De Irujo-Okiñena

EDU MENDIBIL

Bergara Hiriko finalak jokatuko dira martitzenean, 19:30ean. Gazte mailan, Azagirre-Esnaola eta Retegi-Urrizalki izango dira aurrez aurre; nagusien mailan, Eguzkiza-Erauskin eta Martínez de Irujo-Okiñena bikoteek neurtuko dituzte indarrak.

Martitzeneko final erdietan sekulako giroa egon zen Udal Pilotalekuan. Julian Retegiren eta Fernando Arretxeren semeak izan ziren aurrez lehenbiziko partiduan, eta horrek ere lagundu zuen pilotazaleak erakartzeko. Euren aitak harmailetan zeudela, Julen Retegik eta Iker Arretxek lehia polita izan zuten aurreko koadroetan. Retegik eta Urrizalkik 22-21 irabazi zieten Arretxeri eta Muxikari eta tanto benetan politik ikusi ziren. 22koa Retegik egin zuen, bi pareta ikusgarri batekin. Zaleek txalo zaparrada luzearekin agurtu zituzten lau pilotariak, maila handiko detaileak ikusi ahal izan ziren-eta.

Senior mailako partidua eska-sagoa izan zen eta Ander Muguruza bergararrak ez zuen finale-rako sailkatzerik izan. Hark eta Zapirainek 17-22 galdu zuten Eguskitzaren eta Erauskinen aurka.

Txapelketa jokatu duten herriko hiru pilotarietatik Iker Azagirrek bakarrik lortu du finale-rako txartela. Muguruza eta Gutiérrez finalerdietan geratu dira txapelketatik kanpo.

HERRI ARTEKO TXAPELKETA

Herri Arteko Txapelketaren barruan, Bergarak Aretxabaleta hartuko du gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 19:30ean. Joaneko partiduan 2-1 galdu zuten bergararrek. Kadete mailan, 4-22 irabazi zuten Aitor Osak eta Jon Larrañagak; Asier Larrañaga eta Ibai Altuna gazte mailako bikoteak 22-12 galdu zuten Aretxabaletan; eta senior mailan, Ander Muguruzak eta Igor Gutiérrezek 22-16 galdu zuten. Kanporaketa aurrera ateratzekotan, Azpeitiaren edo Orioren aurka jokatuko du Bergarak final-laurdenetan.



Urrizalkik eta Retegik (argazkian) Azagirreren eta Esnaolaren aurka jokatuko dute 22 urtetik azpikoena finala martitzenean.

Ander García eta Antxon Hernández saskibaloari jokalaririk, Euskadiko taldean

E.M.

Ander García eta Antxon Hernández bergararrak infantil mailako Euskadiko Selekzioarekin egon dira Gironan. Aste Santuan jokatutako Autonomien Arteko Txapelketan laugarren geratu zen Euskadi.

Lehen fasean hiru partidu irabazi eta bakarra galdu zuen Euskadik Lloret de Marren, Gironan. Melillari (74-29), Asturias (62-42) eta Kantabriari (73-72) irabazi zion eta Murtziaren aurka 76-63 galdu zuen. Gero, hirugarren posturako partiduan Euskadik Nafarroaren aurka galdu zuen (66-60). Euskadik ez zuen lehen mailara igotzerik lortu: hain zuzen ere, lehen eta bigarren postuan geratu ziren Murtzia eta Galiziako selekzioak igo ziren mailaz.

Infantil mailako adina izan arren (14 urte dituzte), Ander García eta Antxon Hernándezek kadete mailan jokatzen dute Bergaran. Txus Brizuela Euskadiko hautatzailearen deia jaso zuten Gironara joateko. Anderrek antolatzaile postuan jokatzen du eta Antxonek eskolta edo hegaleko. Biak ere oso pozik itzuli dira Gironan jokatutako txapelketa-



Antxon Hernández, lehen ezkerretik, eta Ander García, hirugarrena (biak makurtuta), Euskadiko selekzioarekin.

rekin: "Lehen aldia zen Euskadiko taldearekin jokatzen genuela, eta guretako gauza handia izan da. Estatuko beste selekzio batzuen aurka jokatzeak aukera izan dugu eta lagun berriak egin eta toki berriak ezagutu ditugu".

Antxonek eta Anderrek minutu dezente jokatu dituzte Gironako txapelketan. Azkenean hirugarren postuak ihes egin zion Nafarroaren kontrako partiduan. Sei punturen aldearekin nagusitu zitzaizkien nafarrak.

UDAN KONTZENTRAZIOA

Antxonek eta Anderrek aste bukaera honetan jokatuko dute ligako azken partidua Bergararekin eta uztailean Euskadiko Selekzioarekin kontzentrazioa egingo dute Gasteizen.

GIMNASIA

Begararrak Gipuzkoako Eskola Arteko Txapelketan

Herriko gimnastek emaitza bikainak lortu zituzten Altzan jokatutako Gipuzkoako Eskola Arteko A Mailako Txapelketan: Sarai Gallego lehena izan zen infantil mailakoan artean; Irati Arteaga ere lehen postuan sailkatu zen kadete mailan; eta B mailako gaudezen artean, Uxue Arregi izan zen irabazlea, Maialen Toledo bigarren postuan sailkatu zen eta Iraitz Gastiaín, berriaz, laugarren geratu zen. Denak ere sasoi betean daude aurtan.

FUTBOLA

Peña Athletic-en bazkaria maiatzaren 31n San Martzialen

Begarako Peña Athletic-ek urteko bazkaria egingo du datorren zapatuan, maiatzaren 31n, San Martzialen. Interesatuek Toki-Ona upeltegian eman dezakete izena. Bestalde, bihar, zapatua, Athletic-ek eta Santandergo Racing-ek San Mamesen jokatuko duten partidua ikustera joango dira herriko Athleticzaleak.

Igeri Elkarteak jasandako kalte ekonomikoak salatu ditu

E.M.

Igerilekuak itxita egon diren tartean taldeak jasandako galera ekonomikoak salatu zituzten Igeri Elkarteako arduradunek martitzenean prentsaurrekoan. Era berean, estalitako igerilekuaren balorazio positiboa egin zuten Zuzendaritzako kideek.

Bergarako igerilekuak itxita egon diren denboran Legazpin, Arrasaten eta Oñatin entrenatu dira Igeri Elkarteakoak. Horrek 5.900 euroko aurrekontua ekarri diela esan zuten: "Aurrekontuaren zati handi bat autobus bidaietan joan zaigu, 21.000 euro inguruko aurrekontua daukagu eta. Udalarari dirulaguntza eskatu diogu eta 600 euro besterik ez digute eman". Kanpora entrenatzera joan beharrrak kirol galerak ere eragin dizkie: 50 igerilari zeuden iaz taldean eta aurtun, berriz, 34.

Igeri Elkarteako Zuzendaritzako kideek estalitako igerilekuaren balorazio positiboa egin zuten: "Udalaren aldetik aurreikuspen falta handia egon zen igerilekuak ixtean eta alternatibarik ez aurkeztean. Hasieran barre egin ziguten kanpoko igerileku



Jose Mari Laskurain, Bittor Alberdi eta Jesus Jauregi martitzeneko prentsaurrekoan.

txikia estaltzea proposatu genien, baina ikusi da irtenbide baliagarria izan dela. Horregatik izan ez balitz, Igeri Elkarteak desgertzeko arriskuan egongo zen, zalantza barik".

Kanpoko igerileku txikiak igeri egiteko baldintza onak dituela eta ikasleak eta igerilekura joaten direnak gustura dabiltzala adierazi zuten prentsaurrekoan.

UDAN IGERILEKUA ZABALTZEKO ESKAERA
Igeri Elkarteako arduradunak kezkatuta daude Agorrosingo kirol

gunearen proiektua atzeratzen dabilelako. Bittor Alberdik zera adierazi zuen: "Maiatzean lanak hasiko zirela agindu zuten Udaleko arduradunek, baina proiektua adjudikatzeke dago oraindik". Hori dela eta, udako denboraldirako kanpoko igerilekua zabaltzeko eskaera egin diote Bergarako Udalarari: "6.000 euro inguruko obra egitea nahikoa izango litzateke kanpoko igerilekuak egokitzeko, eta obrak hasi behar ez badira, ez dugu ulertzen zergatik ez dituzten zabaltzen".

Bergarak UDaren aurka agurtuko du liga bihar

E.M.

Preferente mailako Bergara KEko futbol taldeak Aretxabaletaren aurka agurtuko du liga bihar, zapatua, Agorrosinen, 16:30ean. Joan den aste bukaeran, Deban, Amaikak Bat taldearen aurka 0-0 egin ondoren, mahoneroek agur esan zioten igoera promozioa jokatzeari. Pasajes izan da ligako txapelduna eta Tolosak eskuratu du promozioa jokatzeke eskubidea ematen duen bigarren postua. Saillkapeneko hirugarren postuari eusteko Juanina Garairen mutilek beharrezkoa dute bihar UDari irabaztea. Aretxabaletarrak saillkapeneko zazpigarren tokian daude.

Bestalde, kadete mailako bigarren taldeak Lengokoak izango du bisitari bihar, zapatua, Ipintzan, 10:30ean. Azken jardunaldian, bestalde, Bergarak 1-4 irabazi zuen Behobian.

ESKUBALOIKO BI PARTIDU

Bestalde, eskubaloiarri dagokionez, bi partidu izango dira domekan Labegarietako kiroldegian: kadete mailako mutilen taldeak Zarautzen aurka jokatuko du, 10:45ean, eta horren ondoren, kadete mailako nesken taldeak Elgoibar hartuko du, 12:15ean. Biek ere galdu egin zuten azken jardunaldian: neskek Zarautzen (16-11) eta mutilek Zumarragan, Urolaren aurka (29-21).



Bihar Aretxabaletari irabaziz gero Bergarak hirugarren postuari eutsiko dio.

IPINTZAKO FUTBOL TXAPELKETA

Hasi dira Ipintzako partiduak

Atzo eguna hasi zen Ipintzako Futbol Txapelketa. Hainbat mailatan banatuta, ekainaren erdialdera bitartean 49 talde izango dira lehian. Futbol 11ko Txapelketan 21 taldek hartuko dute parte astelehenetik aurrera. Nesken txapelketek ere erantzun ona jaso dute; izan ere, senior mailan bederatzi talde egongo dira, B mailan lau taldek jokatuko dute eta A mailan, berriz, beste zazpi taldek eman dute parte hartzeko izena.



PARTIDUAK

ASTELEHENA 26 (FUTBOL 11)

19:00: Ilari-Mongatxurak
20:00: Bildurbarek Opel Lam-Drink Team
21:00: Arloteak Lacor-Gorriones

MARTITZENA 27 (FUTBOL 11)

19:00: Getokuak-Ska Libur
20:00: Angiola-Beti K.A.B.
21:00: Aristoi-Komando Piperrak

EGUAZTENA 28 (FUTBOL 11)

19:00: Altos Pornos-Fo Fo Fo
20:00: Osintxu-Torrekua
21:00: A Ze Flaxa Guipuzcoana-Indar Gorri

EGUENA 29 (BETERANOAK)

19:30: Bildurbarek Opel Lam-Arloteak
19:30: A Ze Flaxa-Ezinleike
20:30: Mongatxurak-Guipuzcoana
20:30: Txipiron-Canalejas

EGUENA 30 (NESKAK)

20:00: Arrano-Potzu ta Zapaburuak
20:00: Antzuola-Ou Pitxu Oul
21:00: Pentol's Team-Ogizun
21:00: Awilly Willy-Plaust

EGUBAKOITZA 30 (NESKAK)

17:15: Euskaldunak-Xukak
18:00: Arloteak-Irabazleak
18:00: Soraluze A-Aranzadi

ZAPATUA 31 (FUTBOL 11)

09:00: Gore-The Parpol
10:00: La Juve-Txokokuak
11:00: Gorriones-Komando Piperrak
12:00: Mongitxurak-Ska Libur

FRONTENISA

Hamabi bikotek dihardute joan den astea ezkerro Angiozarko Frontenis Txapelketan

Hamabi bikotek dihardute joan den zapatuan hasitako Frontenis Txapelketan. Bihar, maiatzak 24, bigarren jardunaldia jokatuko da Angiozarko Arbiaska pilotalekuan. 09:30ean hasita, sei partidu jokatuko dira. Hamabi bikoteak bi multzotan banatu dituzte eta multzo bakoitzeko lau bikote onenak saillkatuko dira final-laurdenetarako. Hortik aurrera txapelketa kanporaketa bidez jokatuko da. Finala uztailearen 12an izango da.

LABEGARAIETAKO FUTBITO TXAPELKETA

ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

18:00: Bedarreta-Dedo Pafarru. Pagomendi
19:00: Pagomendi-Mongatxurak. Errotagain
20:00: Errotagain-A Ze Flaxa. Mongatx.

DOMEKAN, BARRUAN

19:00: A Ze Flaxa-Mongatx. K. Piperrak
20:00: Artusamak-K. Piperrak. A Ze Flaxa



IBARGARAIKO PALMONDOA ZABALIK

Orain dela urtebete inguru jarri zuten palmondoa Ibargarain, baina aurreko astea ezker daukagu osorik ikusteko aukera. Lorategian behar den moduan finkatzeko ia urtebete izan ditu adarrak lotuta, eta aurreko asteko eguaztenean askatu zituzten. Palmondoak hegoaldeko hiri turistikoek ukitua ematen dio Ibargarairi. Turismoa erakartzeko baliagarria izango da?



2.809.666 EURO BERGARARA

Aurreko asteko egueneko Loteria Primitiboko saria Bergarara etorri zen. Konbinazio irabazlea hau izan zen: 3, 4, 8, 15, 29 eta 36. Lehen mailako irabazle bakarrak 2.809.666 euro eskuratuko ditu. Nor izango ote? Argazkian, Peñalbako Nico Serrano, Pilar Muxika eta Mari Carmen Lasheras.



IRAKURKETAREN ASTEA ARANZADIN

Irakurketa suspertzeko ekitaldiak izan dituzte Aranzadi Ikastolan. Txikienek gurasoen eta aitona-amonen bisita izan zuten (argazkian) eta haiek ipuinak kontatu zizkieten. LHko 3. eta 4. mailakoek, berriz, ipuin erraldoia landu zuten, gero eskolako sarreran jartzeko. Bestalde, LHko 5. eta 6. mailakoak Haur Hezkuntzakoengana eta DBHkoak eta Batxilergokoak Lehen Hezkuntzakoengana joan ziren ipuinak kontatzera.

JARDUNEN OLINPIADAK

GAZTETXOEN OLINPIADETAN 14 TALDE LEHIAN

Jardunek antolatutako Olinpiadak hasi ziren zapatuan. Datozen asteotan 14 talde izango dira lehian. Zapatuan Altxorraren Bila jokoan ibili ziren; herriko mapa baten laguntzarekin sei leku identifikatu behar izan zituzten altxorra osatu ahal izateko. Lehen jardunaldiaren ondoren hauxe duzue sailkapena: 1.- Marraoak (14 puntu), 2.- Tutukiak (14), 3.- Porki Txerriak (13), 4.- Gorridunak (12), 5.- Chipitren (11), 6.- Funkiak (10), 7.- Alperrak (9), 8.- Arrano Beltza (8), 9.- Orbea (7), 10.- San Martintxo taldea (6 puntu), 11.- Sorbandurriatarak (0), 12.- The Scorpions (0), 13.- Rap Boyak (0), 14.- Aupa Gu (0). Bihar, zapatua, toka, igela eta bolo jokoak izango dituzte erretiratuen egoitzan, Boni Laskurain kalean, 16:00etan hasita.





Bai,
nahi
ditut!




IRALA
VIDEOMATIC Plus Bideoak

Simon Arrieta 4. Tel.: 943 76 21 81. Faxa: 943 76 73 33.
video_irala@infonegocio.es



Victoriano Gallastegi.
Bergarako Alkatezaren ikuslagilea.

Orain Bergara.

 Bozkatu eraginkor.



ELKARRIZKETA

BINGEN DE PEDRO/MARGOLARIA

“Esloveniako areto baten inaugurazioa euskal artistekin egin nahi izan dute”

EDU MENDIBIL


Natxo De Vicente eta Juan Carlos Cardenasekin batera, Bingen De Pedro margolari bergararrak Esloveniako hiriburuan, Ljubljanan, erakusketa egingo du. Ekainaren 15ean zabalduko dute.

Zelan sortu zaizue Esloveniako erakusketa egiteko aukera?

Natxo De Vicentek hango arte-galeria bateko arduradunaren, Helena Cretnik-en, proposamena jaso zuen bere lana Ljubljanan erakusteko. Handik euskal artistekin zerbait egiteko ideia sortu zen eta Natxok Cardenasi eta niri elkarrekin zerbait egiteko esan zigun: bizkaitar bat, arabar bat eta gipuzkoar bat. Bilbotarra izan arren, Natxo Aramaion bizi da eta aspalditik ezagutzen dut; Nahikarin ere erakusketa egin izan du. Ljubljana hotel baten inaugurazioa dela eta, ekainaren 15ean zabalduko dugu erakusketa.

Hotel berezia da, baina.

Garai baten kartzela izandako eraikina da eta artistendako leku bilakatu dute. Janko Rozic arkitektoak diseinatu du Metelkova hotela: ziegak izandakoak logela bilakatu dituzte eta hainbat artistak logelen diseinuaz arduratu dira. Horrez gainera, erakusketa aretoa ere egokitu dute eta horren inauguraziorako euskal artisten erakusketa egitea pentsatu dute. Izan ere, Rozic arkitektoak euskal kulturarekiko interes handia dauka. Gainera, Eslovenia eta Euskal Herria nahiko antzekoak ei dira.



E.M.

“Kartzela izandako eraikin bat artistendako leku bilakatu dute Ljubljanan”

“De Vicentekin eta Cardenasekin egingo dut erakusketa; ekainaren 15ean zabalduko dugu”

“Itsasoa eta espazio geometrikoak erakusten dituzten margolanak eramango ditut”

Zelako lanak erakutsiko dituzu Ljubljanan?

Zazpi margolan eramango ditut. Hasiera baten Esloveniako kostalderik ez zuela uste nuen, baina badauka itsasora ematen duen zati txiki bat, hego-mendebalean, hain zuzen. Hori dela eta, espazio geometrikoak antzematen diren eta hondoan itsasoa erakusten duten margolanak aukeratu ditut hara eramateko.

Esloveniako erakusketa parte hartuko duzuen hiru artisten artean badago inolako loturarik?

Natxo eta biok pintura gestuala deritzona egiten dugu: askorik pentsatzeke, erraizetatik egindako margolanak. Margolan koloretuak egiten ditugu biok. Cardenasek, aldiz, estilo figuratiboa jorratzen du, euskal tradizioekin lotura zuzena duena; Cardenasek lan askotan herri kirolei egiten die erreferentzia.

Lehen ere atzerrian hainbat erakusketa egin dituzu. Zelako harrera jaso izan duzu?

Ez dut bakarkako erakusketarik egin, baina beste artista batzuekin Japonian, Maltan, Argentinan, Frantzian eta Italian nire lana erakusteko aukera izan dut. Japonian nahiko ondo joan zitzaigun Zenitaniri, Azkar-gortari eta hiruroi, baina besteetan, erakusketa kolektiboak izatean, saltzea zailagoa gertatu zen.

Esloveniaren ondoren, zertara?
Beharbada aurtengo erakusketa bakarria hori izango da. Gero eta zailagoa da erakusketak egitea; azken urteotan aukera hori eman digun Bilboko Berta Belaza galeria itxi egin dute.

Gaztetxea ekitaldiz lepo aste bukaeran

MONIKA BELASTEGI

Aste bukaeran musika eta antzerki emanaldiak egongo dira gaztetxean.

Bihar, zapatua, musika emanaldia egongo da, 22:30ean. Bi taldek hartuko dute parte: Berrizko Seiurte taldeak, batetik, eta Andoaingo R taldeak, bestetik. Gainera, bi taldeok Metak argitaletxearekin grabatutako lana aurkeztuko dute emanaldi horretan.

Seiurte taldea pop eta rock doinuak egiten dituen laukotea da. Iazko Euskadi Gaztea saria irabazi ondoren grabatutako lehen diskoak *Bapatean* du ize-

na, eta horixe entzun ahal izango dugu bihar.

R taldea, berriz, Andoainen sortutako laukotea da. Horiek ere lehen diskoa aurkeztera datoz, *Hedatuz* izeneko diskoa, hain justu ere. Hardcorearen eta poparen arteko lana da, eta iaz Villa de Bilbao irabazi eta gero grabatutako estreinako lana da.

UMOREZKO ANTZERKIA

Domekan, berriz, antzerkiaren txanda izango da: Jon Plazaolak eta Macrea Clarke irlandarrak *Hippien mendekua* antzezlana egingo dute, 19:30ean, gaztetxean. Umerez jantzitako antzezlana da *Hippien mendekua*.



Aritzeta abesbatzak emanaldia egingo du zapatuan Bartzelonan

Aritzeta abesbatza Bartzelonara doa aste bukaeran. Izan ere, bihar, zapatua, emanaldia egingo du hiriburuan, Sant Esteve parrokiaren, hain justu, 21:00etan. Hango Txiribec koroarekin du harremana, eta trukean kataluniarrak ere Bergarara etorriko direla aurreratu du Aritzetak. /M.B.

E, TXO!

ELKARRIZKETA

TOKIKO IRRATI IKASTAROAK DONOSTIAN

Otxoki Irratiak tokiko irradi ikastaroak antolatu ditu Donostian, 11 eta 16 urte arteko gazteendako. Irratiaren hastapenaren gaineko oinarriko ikastaroetatik hasi eta autokontrolaren gaineko ikastaroak ere eskainiko dituzte. Maiatzaren 31ra arte dago izena emateko aukera, honako telefono zenbakira deituta: 943 32 29 09. E-posta bitartez ere eman dezakezue izena: otxoki@euskalnet.net.

MARTUTENEN BOLUNTARIO LAN EGITEKO AUKERA

Martuteneko Kapilautzak kartzelako presoekin lan egiteko auzolandegeak antolatu ditu, Donostiako Elizbarrutiko marjina-tuen munduarekiko kezka duten 21 urtetik gorako gazte eta helduendako.

Euren zeregina izango da goizez prestaketa lanak egin eta arratsaldez Martuteneko kartzelara joatea bertako presoekin egotera.

Uztailaren 20ra arte duzue izena emateko aukera, honako telefono zenbakira deituta: 943 46 25 17.

HAINBAT AUZOLANDEGI AUKERAN

Caritas-ek, bestalde, hainbat auzolandege antolatu ditu: batetik, etorkinekin lan egiteko; eta bestetik, gaixo mentalekin lan egiteko. Uztaila eta iraila bitartean izango dira auzolandegeak, eta izena emateko aukera duzue ekainaren 30era arte. Lehendabiziko auzolandegeari dagokionez, telefono zenbaki honetara dei dezakezue: 943 29 10 40. Bigarren auzolandegeari dagokionez, berriz, honako telefonora: 943 27 92 30.

ALVARO MÚÑOZ/BIDAIARIA

“Europan merke bidaiatzeko beharrezko informazioa emango dugu hitzaldian”

AINTZANE IRIZAR


Egubakoitzean, hilaren 30ean, hitzaldia egingo dute Alvaro Múñozek eta haren lankide Ibon Martínek Kultura etxean, 19:00etan. Bidaiatzerako orduan kontuan hartu beharrezkoak izango dituzte hizpide.

Merke bidaiatzeko sekretuen gainean egingo duzue hitzaldia. Zeintzuk dira, bada, sekretuok?

Iaz Europako gidaliburu bat argitaratu genuen, *Europa. Guía esencial para el interrail y el viajero independiente* izenburupean. Gidaliburu horretan 38 herrialderen gaineko informazioa batu dugu, baita merke bidaiatu ahal izateko argibideak ere: ostatuak, pentsioak, jatetxeak... Azken baten, bidaiari independenteak, *motxilariak*, Europan zehar ahalik eta gutxien gastatuz bidaiatzeko beharrezko duen informazioa ematen dugu gidaliburu horretan. Hitzaldian ere horretan gainean egingo dugu berba, nahiko ondo ezagutzen dugulako zelan lortu bidaiak politik egitea oso diru gutxiren truke. Adibidez, pagotxa da Paris erdialdean 15 euroren truke lo egiteko tokia topatzea. Interraila, aterpetxeak eta jatetxe merkeak batzen baditugu, badugu merke bidaiatzen hasteko gutxieneko informazioa. Bada, hori guztia azaltzen saiatuko gara Bergaran egingo dugun hitzaldian.

Zuen gidaliburuaz gain, nora joenezake informazioa eta bidaiak merkeak lortzeko?

Adibidez, hegazkin txartel merkeak lortu nahi izanez gero, badaude konpainia merkeak: Ryan Air eta Virgin Express, besteak beste. Internetera jo eta segituan topa daiteke informazioa. Jakina, interraila aukera ezin hobe da. Bestalde, lo egiteko



TRAVEL BUG

bidez funtzionatzen dutela; hau da, oso pertsona gutxi dituzte lanean, oso bulego gutxi dituzte eta azpiegitura txikia dute, eta, hortaz, oso gastu txikiak dituzte. Horregatik, oso merke saltzen dituzte txartelak.

Zu asko bidaiatutakoa zara. Zer esango zenioke lehen bidaiak egiten hastera doan gazte horri?

Gauza eta toki ezezagunei askotan izaten diegun beldurra alde batera lagatzeko eta, batez ere, Europan zehar bidaiatzera badoa, ez dagoela batere arazorik; jende asko ibiltzen da bidaiatzen, gazte asko, eta ia ezinezkoa da trenean beste *motxilari* batzuk ez topatzea. Bidaiatzeak antolakuntza handia eta konplexua dakarren ideia hori alde batera lagatzeko esango nieke.

Interrail delakoaren aukera aipatu duzu lehen. Zer da hori?

Europan zehar trenez ibiltzeko txartel global bat da. Europako herrialde gehienek osatzen dute sare hori. Gehienez 30 egunerako eros daiteke txartel hori eta gutxienez, 22 egunerako. Europako sare hori zonaka antolatuta dago, eta txartela zonen arabera eros daiteke. Esate baterako, Frantziak, Holandak eta Belgikak zona bat osatzen dute. Behin txartela erosita, nahi beste ibil daiteke trenean.

Non eros dezakegu txartela?

Renferen edozein geltokitara jo eta hantxe saltzen dituzte. **Orain dela gutxi, bestalde, Rutas por Euskadi gidaliburu argitaratu duzue. Zer jaso duzue bertan?**

Oinez egiteko 40 ibilbide; mendi ibilbideak dira, mendizale profesional izan barik erraz egiteko modukoak. Horrekin batera, jate-txeen gaineko informazioa eta historiaren gainekoa, besteak beste, jaso ditugu.

“Toki ezezagunei askotan izaten diegun beldurra alde batera laga behar dugu”

lekuei dagokionez, hor ditugu Gazteendako Nazioarteko Sarean dauden aterpetxeak eta ostatuak. Normalean, aterpekide-txartela behar izaten da horrelakoetan.

“Interneten segituan topa daiteke informazioa eta bidaiak merkeak egiteko aukerak”


Badirudi gero eta gehiago jotzen dela Internetera.

Bai. Pagotxak topatzeko oso aukera onak eskaintzen ditu. Kontua da konpainia horiek Internet

TIRABIRAKA/ Gorka Ortega eta Jon Alvarez

BILATU ZAZPI AKATSAK:

2002ko LDA



2003ko LDA



ZAHARRENETXETIK

Aurten 87 urte egin edo egingo dituzten 44 bergararrak omendu zituzten domekan

E.M.

Aurten 87 urte bete edo beteko dituzten bergararrak omendu zituen domekan San Joxepe erretiratuen elkarteak. Aurten 44 lagun izan dira omendutakoak eta horietako 21 egon ziren erretiratuen egoitzan egindako ekitaldian.

San Joxepeko abesbatzak lagundutako meza esan zuen Santa Marinako parroko Xabier Azkoitiak Sierbetan, 11:30ean, eta han egon ziren omendutakoak. Mezaren ostean harrera egin zieten erretiratuen egoitzan. San Joxepeko presidenteorde Jose Miguel Ortigosak ongietorria egin zien guztiei eta, besteak beste, osasunari eusteko eskatu zien. Ramon Etxaniz txistulariak lagunduta, Ainhoa Alonso eta Miren Basauri dantzariak aurrakua eskaini zieten.

San Joxepe, urtero, 87 urte egiten dituzten bergararrak omentzeko ohitura dauka. Aurten 44 lagun dira adin horretara ailegatu edo ailegatu direnak. Horietako 21 egon ziren omenaldian; honako hauek, hain zuzen ere: Maria Alberdi, Margarita Andrés, Presentacion Aranburu, Justina Arregi, Juana Arrizabalaga, Peli Etxeberria, Abdon Egia, Maria Erdabide, Manuela Garitano, Elena Larrañaga, Josefina Lazpiur, Agapita Leturiaga, Jacinto Markiegi, Carmen Muxika, Margarita Kerexeta, Florentina Ugaldea, Vicente Untzurrunzaga, Rufina Zubierremateria, Manuela Muguruza, Mercedes Larrañaga eta Lucio De la Presa. Ikusten denez, emakumeak izan ziren nagusi.

Omendutako guztiek plaka oroigarri bana jaso zuten San Joxepeko Zuzendaritzako kideen eskutik. Era berean, San Joxepeko abesbatzako kideek hainbat

kantu interpretatu zituzten. Besteak beste, *Zorionak* abestu zuten, omendutakoen gozamenarako. Gero luntxa egon zen han batu-

takoendako. Betiko moduan giro bikaina egon zen eta antolatzaileak eta omendutakoak pozik azaldu ziren ekitaldiarekin.

Hainbat arrazoirengatik domekako omenaldira joaterik izan ez zutenek euren etxeetan jasoko dituzte plaka oroigarriak.

UDABERRIKO JAIA EGUAZTENEAN
Eguaztenean, jaia izango da San Joxepen. Merienda eta dantzaldia egongo dira, 17:00etan.

Deutsche Post  World Net
MAIL EXPRESS LOGISTICS FINANCE




Indartsuago.

Mundu-mailan estandar berri bat sortu da Espres-zerbitzuei, merkantzien garraioari eta logistikari dagokienez. Guipuzcoana Euro Express, paketeen alorrean Europako buru dena, DHL Worldwide Express, aireko garraio espresetan munduko buru dena eta Danzas, aireko eta itsasoko zamen alorrean munduko buru dena DHL markapean bildu dira are hobe den osoko zerbitzua eskaintzeko. Orain, eskaintza, zerbitzu eta aukera gehiago jartzen ditugu zure eskura munduko 220 herrialde baino gehiagotan. Zure beharrak edozein direla ere, horiei erantzuna emateko prest gaude. Jar zaituzte gurekin harremanetan eta DHLren indar osoa izango duzu zure negozioaren zerbitzura.


*Omendutakoek
plaka oroigarria
jaso zuten eta
jarraian luntxa
egon zen*

*Erretiratuen
abesbatzak
Sierbetako mezan
eta San Joxepen
abestu zuten*

DHL Express Bergara
San Juan Erreka 33
20570 - Bergara
Tel.: 943 763 642
Faxa: 943 765 425

MUNDUA MUGITZEN DUGU 

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Armarria eta ataria kale berean daude. Zein kaletan?

ESKULTOREBERGARARRAKGAUR


Javier Ugalde

EDU MENDIBIL

O rain dela 20 bat urte hasi zen eskultura lantzen Javier Ugalde (Bergara, 1963). Gaur egun Simon Arrieta Zeramika Taldean dihardu, Zabalotegin. Aurretik egurra, harria eta moldeak egiteko porlana erabili dituen arren, buztin errearekin egindako lanak egitea du gustukoaren: "1.200 gradutan egos daitekeen buztin erregogorrek lan egitea atsegin dut. Behin egosi eta gero buztinak izaten duen ehundura izugarri gustatzen zait. Nire estiloa abstraktua da eta batez ere eskulturen formei eta buztinaren ehundurari ematen diet garrantzia. Kolorea baino gehiago, nahiago dut oxidoak erabili, buztinari tonuak emateko". Paretan jartzeko eskulturrak ere egiten ditu Ugaldek.

Astean behin-edo Zabalotegiko lokalera joaten dela diosku. Zeramika taldekoek jaietan egingo duten erakusketarako lanak gertatzen dihardu egunotan. Prozesua nahiko luzea dela dio: "Burututako ideia baten oinarrituta, marrazten, zírribo-roak egiten hasten naiz, eta hortik pieza egin, sikatu, egosi eta tonuak asmatu arte lan handia dago".

"Batez ere eskulturen formei eta buztinaren ehundurari ematen diet garrantzia"



E.M.

GALDEDEBALDE

1.

Zein da Jaurlearitzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea?

- A/ Lore Leanizbarrutia.
- B/ Patxi Goenaga.
- C/ Miren Azkarate.

2.


Ljubljana zein hoteletan egingo du erakusketa Bingen De Pedro margolariak?

- A/ Masterkova.
- B/ Metelkova.
- C/ Sestava.

3.

Nor da infantil mailako Euskadiko saskibalo taldeko entrenatzailea?

- A/ Txus Brizuela.
- B/ Josean Kerejeta.
- C/ Essie Hollis.



AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

IRENE SANTAMARIArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Irene!

Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Hiraburu / Galde debalde: 1-C, 2-B, 3-C.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Koipesol ekilore-olioa

Litro bat.

1,19 €

198 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



EGUZKITZA
ERRETEGIA

Haranerreka 50, behea
943 76 70 45

Eguzkitza erretegiak bere urteurrena zuekin ospatu nahi dau **Pentekoste jaixetan MENU BEREZIA eta TXARRIKUMIA**

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09



POL-POL
Taberna

943 76 07 78. Bergara



BERGARA
Alex Arteaga
Maiatzaren 25ean, 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Maika Gallastegi
Maiatzaren 14an, 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Miren Urrea
Maiatzaren 24an, 4 urte.
Urte askotarako eta musu
bat! Jone eta etxeokak.



BERGARA
Mikel Luna
Maiatzaren 23an, 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Oier Sánchez
Maiatzaren 19an,
urtebete. Urte askotarako!
Bernar eta Ana.



BERGARA
Paula Arantzabal
Maiatzaren 26an, 10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Ane Larrañaga
Maiatzaren 24an, 18 urte.
Urte askotarako!
Lagunak eta mutila.



BERGARA
Ander Zengotita
Maiatzaren 21ean,
urtebete. Urte askotarako!
Julen eta etxeokak.



BERGARA
Julen Zengotita
Maiatzaren 24an, 3 urte.
Urte askotarako!
Ander eta etxeokak.



BERGARA
Errose Agirre
Maiatzaren 26an,
urtebetetzea. Urte
askotarako! Jakuzzikoak.



BERGARA
Nekane Muñoz
Maiatzaren 24an, 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Mireia Lizarralde
Maiatzaren 27an, 19 urte.
Urte askotarako!
Lagun bat.



ANTZUOLA
Onintza Olano
Maiatzaren 26an, 3 urte.
Urte askotarako! Amama
Karmen eta etxeokak.



BERGARA
Ane Barragan
Maiatzaren 10ean,
10 urte. Urte askotarako!
Etxekoak; batez ere, Jon.



ANTZUOLA
Aiert Kerexeta
Maiatzaren 29an, 4 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Eider Najera
Maiatzaren 23an, 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



BERGARA
Manex Bengoa
Maiatzaren 25ean, 5 urte.
Urte askotarako! Etxekoak
eta, bereziki, Maddi.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAREN agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

EDEL

TAPIZDENDA

Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena

**Alfonbrak, kortinak, kortinoiak,
koltxak, edredoiak, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

KONDE

PANADEROKUA

Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

IBARGYREN

PENTSYAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako
nekazal produktuak

San Pedro 3. BERGARA.
Tf. 943 76 23 79

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

TELEIXA

BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tf. 943 76 27 93

ezpeleta

Ostalaritzarako ehungintza

Ostalaritza eta
egoitzetarako
mahai-zapi eta
industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77
Tf. eta faxa: 943 76 17 09

IRRINTZI

kafetegia

Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko maiatzaren 23a / 158. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

LABUR

Domekan Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak frontoian

Politikariendako eta hautesleendako ez ezik, Antzuolako umeendako ere egun berezia izango da maiatzaren 25a. Izan ere, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazo ezagunen bisita izango dugu domeka arratsaldean. *Katxiporreta* euren azken ikuskizuna taularatuko dute arratsaldeko seietan, Udal Pilotalekuan.

Pailazo beteranoak dira Takolo, Pirritx eta Porrotx; hamabosgarren urtemuga bete dute orain dela gutxi, eta, urtemuga hori ospatzeko, hain zuzen ere, prestatu zuten *Katxiporreta* ikuskizuna. Era berean, izen bereko diskoa ere kaleratu zuten.

Gerbasio eta txistulariak oso pozik azaldu dira

Maiatzaren 11n eman zioten Gerbasio Legorbururi zilarrrezko domina eta Antzuolako bandera eta gutuna. Hala, egun hartan parte hartu zuten herritar, antolatzaile eta kanpotik etorritako lagun guztiei esker eman nahi izan dizkie Gerbasioak. Antzuolako Txistulari Taldeak, berriz, antolaketan lanetan eta omenaldian parte hartu zuten guztiei eman nahi dizkie eskerrak.

Kongora bidaltzeko 1.300 eurotik gora batu zituzten

Zapatu arratsaldean txistorra-jana antolatu zuten lagun talde batek eta Anelkar elkar-teak, Kongorako dirua batzeko. Eta 1.300 eurotik gora batu zituzten. Bittor eta Andres Arbulu anaiak ekainean joango dira Kongora, orain dela bi urte hasi zuten lana bukatzerara. Herri batera ura eramateko hoderia jartzen jardun zuten orduan.

Herri hartan eskola bat eraikitzen dihardute, eta eskolarako izango da dirua.

'Egunkaria'-ren alde sortutako batzordeak akzioak saltzen dihardu

AINZANE IRIZAR

Egunkari berria izango denaren proiektua aurkeztu zutenean hona akzioak saltzen dihardute herri batzordeko kideek. Datorren martitzenean, hilaren 27an, proiektu berria aurkezteko hitzaldia egingo dute egingo dute Olanan etxean, 19:00etan.

Otsailaren 20an *Euskaldunon Egunkaria* itxi eta berehala, Euskal Herriko herri gehienetan egunkari horren aldeko herri batzordeak sortzen hasi ziren. Antzuolan ere segituan osatu zuten taldea: martxoaren 4an dagoeneko lehendabiziko batzarrak egin zuten. Orduz gero *Egunkaria*-ri eta langileei elkartasuna adierazteko eta diruz laguntzeko hainbat ekimen egin dituzte.

Herri batzordearen lehenengo helburua izan zen *Egunero* egunkari berrirako harpidedunak lortzea. Azkeneko datuen arabera, 40 bat antzuolar harpidetu ziren egunkari hori egunero etxean jasotzeko. Beste 40 bat lagun, berriz, astean egun batzuetan bakarrik jasotzeko harpidetu ziren.

Gero, *Euskaldunon Egunkaria*-ri eta langileei laguntzeko



JESUS ETXEBERRIA

Hainbat ekimen antolatu dituzte herrian *Euskaldunon Egunkaria*-ri elkartasuna adierazteko.

bono-laguntzak saldu zituzten: 300 euroko bi bono eta 50 euroko hogeitun bono, hain zuzen ere.

AKZIOAK SALGAI

Behin egunkari berriaren proiektua aurkeztuta, herri batzordearen helburua momentu honetan

da eguneroko horren akzioak saltzea. Hala, San Isidroko ferian hasi ziren akzioak saltzen eta, oraingoz, 50 euroko zortzi akzio eta 300 euroko bi saldu dituzte. Akzio horiek erosi nahi dituenak Udaleko Euskara Zerbitzura jo dezake, goizetan. Orain, batez

ere, 300 euroko akzioak saltzea komeni zaie.

Horrenbestez, egunkari berriaren proiektuari dagokionez, esan bezala datorren martitzenean egingo dute aurkezpena Antzuolan. Olanan etxean izango da hori, 19:00etan.

HERRITARREN HITZA / Eneko Iturbe • Ikaslea

Bozka "eraginkorra"

Datorren maiatzaren 25eko Udaletarako eta Batzar Nagusietarako hauteskundeak direla eta, hor ari dira alderdi "abertzale" guztiak botorik erabilgarriena eta eraginkorrena euren dela lau haizeetara aldarrikatzen.

Erabilgarria, euskal gatazka politikaren erabateko konponbiderako, erabilgarria euskal herritarrok geure etorkizuna erabaki ahal izaterako orduan, erabilgarria PP-k eta alderdi espainiarrek Euskal Herriaren zapalkuntzan emandako pausoei aurre egiterako orduan.

Gainera, ezker abertzalearen legez kanporatzearen aurrean erakutsitako jarrera partidista eta interesatuaz gain, AuB eta herri plataformen aldeko botoa, alderdi espainiarren aldeko boto baliogabea dela esaterainoko aurpegia ere izan dute.

Baina zer berme ematen dute, euskal nazio aske bat eraikitzeko urratsak ematearen inguruan?



"Itxurakeriak utzi eta ekintzetara pasatzeko garaia da"

Autonomia Erkidegoko gobernuak eta bere ardurapean

Benetan konponbidera eramango gaituen bide bat garatzearen inguruan? Euskal herritarren erabakia bermatua izango denaren inguruan? Ez al zen *Euskaldunon Egunkaria* euskaldunok geure borondatez eraikitako egunkari euskalduna? Eta hala bazen, nola justifikatzen da Euskal

dagoen Ertzaintzak honen itxieraren aurrean izandako jarrera? Zergatik behar du izan hain arraroa, euskal baliabide militarra den Ertzaintza indar zapaltzaile inbasoreei aurre egiten ikusteak? Erabilgarria!

Itxurakeriak eta hitz hutsak alde batera utzita, ekintzetara pasatzeko garaia da. Euskal Herriaren aurrerabidean eta herri aske baten garapenerako bidean eman daitekeen bozka erabilgarri eta benetan eraginkor bakarra AuB eta herri plataformen aldekoa da. Euskal Herria, independentea ez bada, izango ez delako.

KIROLAK

Azkarate-Jauregi eta Lizarralde-Azkarate bikoteek irabazi dituzte paletako finalak


A.I.

Zapatu goizean jokatu zituzten Herriko Paleta Txapelketako finaleko partiduak. Lehen mailan, Oskar Azkaratek eta Tomas Jauregik osatutako bikotea gailendu zen; bigarren mailan, berriz, Eneko Lizarralde eta Aitor Azkaratek irabazi zuten txapelketa.

Goizeko 11:00etan hasi zen bigarren mailako finaleko partidua. Ordu horretan ez zegoen oraindik jende asko frontoian, baina finalak izanda, pixkanaka-pixkanaka gero eta ikusle gehiago batu zen partidua ikustera.

Eneko Lizarralde eta Aitor Azkaratek Mendizabal aita-semeak izan zituzten aurrez-aurre partidua horretan. Eneko Lizarralde Andoni Rodríguezekin ordezkatu zuen, Andoni kanpoan zegoelako. 30 eta 17 irabazi zuten Lizarralde eta Azkaratek.

Bigarren mailako partiduak ordu erdi inguru iraun zuen, eta 11:40 inguruan hasi zen lehen mailako finala, final borrokatua, benetan. Aitor Iraola eta Ruben Iturbe Oskar Azkarate eta Tomas



Tomas Jauregi eta Oskar Azkarate, lehen mailako txapeldunak.



Aitor Azkarate eta Eneko Lizarralde, 2. mailako irabazleak.

Jauregiren aurka lehiatu ziren. Oso partidua parekatua eta emozioz betea izan zen bigarren hau. Emaizak ere halaxe erakusten digu: 30 eta 29 irabazi zuten Azka-

rategik eta Jauregik. Azkeneko momentura arte ez zen jakiterik izan zeinek irabaziko zuen.

Aipatzekoa da, bestalde, Oskar Azkaratek eta Tomas Jau-

regik irabazi zutela iaz ere lehen mailako txapelketa. Bigarren mailakoan, berriz, Rodríguez eta Aitor Azkarate bigarren geratu ziren.

LABUR

Gipuzkoako finala jokatu dute herriko gimnastek

Herriko gimnasta alebinek, benjaminiek eta infantilek bihar, zapatua, arratsaldean jokatu dituzte Gipuzkoako txapelketako finalak. Bergaran jokatu dira finalak, Labegaraietako Kiroldegian, hain zuzen ere.

Bestalde, aipatzekoa da Uxue Arregik irabazi zuela Gipuzkoako txapelketa hila-ren 10ean. Maialen Toledo bigarren sailkatu zen eta Iraitz Gastiain laugarren.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Erregionalak Kopako finalerdietarako sailkatu dira, baina oraindik zehazteke daude partiduen egunak.

EMAITZAK

FUTBOLA

Urki 3 Antzuola 7 (2. erreg.)
Antzuola 1 Internac. 0 (Gazteak)



Jose Angel Zabalo.
Antzuolako Alkatetzarako Hautagaia.

Orain Antzuola.



Bozkatu eraginkor.



M25 / ANTZUOLARAKO EGITASMOAK



GERTU GAE

Igogailuak jartzeko laguntzak ematen jarraitzea proposatzen dute

Hona hemen prestatuta zuten programaren hainbat puntu:

► **OSASUN ZERBITZUA**
Osasun Zerbitzua euskalduna izan dadin urratsak ematea eta zerbitzua hobetzea.

► **ONGIZATEA**
Etorkinen integrazioa bultzatzeko eta adinekoen beharrianak asetzeko plangintza egitea, eta presoiei eta haien senitartekoei laguntzea.

► **GAZTEAK**
Gazteei dagokienez, hainbat ekimen azpimarratzen zituen plataformaren programak: besteak beste, euren lokala autonomiaz kudeatzeko aukera ematea eta Gazte Asanbladari laguntzea.

► **HIRIGINTZA ETA AZPIEGITURAK**
Ertzileko industrialdearen proiektua egitea, Uzarragarako bidegurutzetik Elay eta Matz-Errekarako bide berria egitea eta garraio publikoa herritarren beharretara egokitzea.

► **ETXEBIZITZA**
Igogailuak jartzeko laguntzak ematen jarraitzea eta aukera sortzen den neurrian lurzoruaren jabe egiten jarraitzea, besteak beste.

► **IRAKASKUNTZA**
0 eta 3 urte artekoen ziklo osoa publikoa izan dadin behar diren kudeaketa lanak egitea eta Herri Ikastetxearekin lankidetzan jarraitzea.

► **EUSKARA**
UEMAREN helburuak betetzea eta erabilera bultzatzeko kontzientzia kanpainak egitea.

► **KIROLA**
Kirolaren oinarri konpetitiboa eta sexukeria alde batera laga eta oinarriztat osasuna eta pertsonaren bilakaera integrala dituzten praktikak bultzatzea. Eskola kirola babestea eta bultzatzea ere zehazten zuten euren programan.

► **EKOLOGIA**
AHTren aurkako jarrera azaltzea eta baso publikoak gehitzea proposatzen zuten, besteak beste.



EAJ-EA

Adinekoei laguntzeko programak eta ekimenak bultzatuko dituzte

► **ETXEBIZITZAK**
Sustapen berrien alternatiba bezala, herria birgaitzeko politikak bultzatzeko konpromisoa hartzen dute, batez ere Hirigune Historikari eta Birgaitze Integralari dagokienez. Bestetik, lurzoruaren alorrean, Udalak lurrak bereganatzeko beharrezkoak dituen aurrekontuak bultzatuko dituzte, kontrolatutako prezioak izango dituzten etxebizitzak bultzatzeko asmoarekin hain zuzen.

► **MERKATARITZA, INDUSTRIA ETA ENPLEGUA**
Gaur egungo merkatuari lurzoru industrial prestatua eta lehiakorra eskaintzeko beharrezkoak diren inbertsioak suspertuko dituzte. Hori guztiori, baina, herriko enpresekin lankidetzan egingo dute, hain zuzen ere, enpresa horien beharrianak eta iritziak jakin eta garapen ekonomikorako baldintza egokiak eta giro onena sortu ahal izateko.

► **HIRIGINTZA ETA INGURUMENA**
Gizakiaren jardueren garapenerako egokia den hiri egitura diseinatu dute; horretarako, besteak beste, oinezkoendako bideak sortzea eta zirkulazio arazoak dituzten gunek arintzea beharrezko ikusten dute.

► **GIZARTE ZERBITZUAK**
Gizarte laguntzarako ekintzen artean, pertsona nagusiek euren betiko ingurunean irautea benetan ahalbidetuko dituzten zerbitzu, baliabide eta prestazioen bidetik joko dute: etxeko laguntza, eguneko zentroa, pertsona adinduak zaintzen dituzten familiei laguntzak...

► **HEZKUNTZA, KULTURA ETA KIROLA**
Kulturarako baliabide egokiak ezartzeko eta gaur egun dauden azpiegituren kalitatea hobetzeko ahalegin guztiak egingo dituzte, gizarteak unean-unean dituen eskaerei behar bezala erantzun ahal izateko.

► **GAZTERIA**
Eskola ikasketak egiten eta lehenengo lana aurkitzen lagunduko diete gazteei, horretarako beharrezkoak diren ekintzak bultzatuta.



PSE-EE

Beheko Auzorako plan integrala diseinatzeko premia ikusten dute

► **FUTBOL ZELAIA**
Futbol zelairako instalazio egokiak lortzea, belar artifizialarekin. Horretarako, lankidetzan bultzatuko dugu enpresa eta erakundeekin: Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Gipuzkoako Futbol Federazioarekin...

► **IBARRE**
Auzo horretan lursailak ahal den lasterren erosteko premia ikusten dute, beharrezkoak diren urbanizazio lanak egin ahal izateko eta auzokoendako aparkaleku gehiago egiteko.

► **ETXEBIZITZA**
Gaur egungo arazo larrietako bat etxebizitzarena dela ikusita, Udalak bultzatutako etxebizitzak egiten jarraitu behar dela uste dute, eta politika hori indartu eta bultzatuko dute.

► **BEHEKO AUZOA**
Beheko Auzoak urte dezente dituela eta auzo horretako beharrianak zeintzuk diren kontuan hartuta, plan integral bat egitea proposatzen dute sozialistek, eraikinak eraberritzeko informazioa eta laguntzak emanda.

► **ERREPIDEAK**
Saihesbideak eragiten dituen arazoak eta segurtasunik eza konpontzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak hartutako konpromisoa ahal den lasterren bete dadin lortzeko ahalegin guztiak egingo dituzte, batez ere, Antigua eta Errekalde pareko errepide zatiari dagokionez.

► **GIZARTE ONGIZATEA**
Azkeneko puntua, baina euren iritzi garrantzitsuenetakoak, adinekoei laguntzeko programak eta ekimenak bultzatzea da; adineko gero eta herritar gehiago dagoela kontuan hartuta eta gizarteko sektore berezia dela eta, eurei lagun egiteko hainbat ekimen abian jartzea proposatzen dute, besteak beste: telealarma zerbitzua herritarren artean ezagutzera ematea eta zabaltzea, auzoen tutoretza programak ezagutarazi eta bultzatzea eta nagusien beharrianak erantzun dieten hainbat programa eta ekimen kudeatzea.



PP

Herri mailako Segurtasun batzordea eratzea proposatzen dute

► **GIZARTE ONGIZATEA**
Familiarekiko eta adinekoen bizi kalitatea hobetzeko konpromisoa hartzen dute. Horrela, besteak beste, honako proposamenak egiten dituzte: familia ugarien aldeko politikak ezartzea; drogen aurkako orientazio kanpainak egitea familiei laguntzeko; dependetzia egoera larrian dauden pertsonen laguntzeko programak abian jartzea.

► **GAZTEAK**
Lan Heziketako programak bultzatuko dituzte; tolerantziaren, elkartasunaren eta zeregin publikoetan parte hartzearen gaineko sentsibilizazio ekimenak bultzatuko dituzte gazteen artean. Haurdunaldien, anorexia eta bulimiaren eta gazteen osasunarekin lotutako hainbat gairen gaineko informazio programak bultzatuko dituzte.

► **KIROLAK**
Eskola arteko txapelketak indartzen saiatuko dira; Guraso Elkarteekin lankidetzan, eskolatik kanpo ere kirol jarduerak bultzatuko dituzte; kirolaren betiko balioak bultzatuko dituzte eta gutxituei eta adinekoei kirola egiteko erraztasunak jarriko dizkiete.

► **ENPLEGUA**
Batez ere, gazteei, emakumei, gutxituei eta 45 urtetik gorakoei laguntzeko neurriak hartuko dituzte. Ekintzaile berriei laguntzarako eskainiko dizkiete.

► **'PLAN BERDEA'**
Herriko biodibertsitateari eusteko neurriak hartuko dituzte, naturaguneak areagotuta eta bertako landare eta zuhaitzak landatuta.

► **SEGURTASUNA**
Segurtasuna bermatzeko eta delinkuentziaren aurka egiteko neurriak hartuko dituzte. Herrian bertan Segurtasun batzordea eratzea proposatzen dute.

► **ETXEBIZITZAK**
Etxebizitza Plana egitea proposatzen dute, diru sarrera txikien duten gizarteko taldeei erraztasunak emateko eta babestutako etxebizitzak bultzatzeko. Batez ere, errentan hartzeko etxebizitzaren aldeko politika egingo dute.

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003ko maiatzaren 23a / 142. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Baserritarren Elkarateak errenta alokairua luzatuko dio Ozkarbiri

IRATI AGIRREAZALDEI

Baserritarren Elkarateak, urteko batzarrean, Ozkarbiri alokatutako lokalaren errenta eguneratzeko erabakia hartu zuen. Hala ere, oraindik ez du zehaztu epea noiz arte luzatuko duen, teilatua konpontzeko aurrekontuaren baitan dago eta erabaki hori.

Cooperativa Católica del Campok, Elgetako Baserritarren Elkarateak, urteko batzarra egin zuen domekan, hilaren 18an.

Batzarera joandako 50 bazkideek elkaratearen diru kontuen balantzearen berri izan zuten lehenengo eta horren ondoren beste zenbait gai landu zituzten.

Batzarreko gai nagusiak Ozkarbi Elkarateari errenta eguneratzea eta teilatuaren konponketa izan ziren. Baserritarren Elkarateak, orain dela 25 urte inguru, 20 urterako tratua egin zuen Ozkarbirekin, eta 20 urte pasatuta lokala saltzeko edo errentan emateko aukera izan zuen. Hala, errentan jarri eta bost urte pasatuta tratua eguneratzeko ordua heldu denean, hainbat eztabaida sortu dira: Baserritarren elkar-



Ozkarbiri alokatu dio Baserritarren Elkarateak plazan dagoen lokala.

teko kide batzuk lokala saltzearen alde agertu ziren, beste batzuek, berriz, errentan emateko. Erabakia izan da Ozkarbirekin duen hitzarmena eguneratu eta lokala alokairuan lagatzea.

TEILATUA

Edozelan ere, ez du zehaztu zenbat denborarako alokatuko dion lokala.

Teilatuan konponketak egin behar dira eta Baserritarren

Elkarateak eta Ozkarbik ordaindu behar dituzte. Hainbat aurrekontu dituzte esku artean, eta Elkarateko zuzendaritzak erabakitako aurrekontuaren arabera jakingo da epea noiz arte luzatu.


LABUR

Jaunartzeak egongo dira domekan parrokan

Domekan, maiatzaren 25ean, Elgetako zortzi neska-mutillek Lehen Jaunartzea egingo dute Elgetako Andre Mariaren elizan, eguerdiko hamabietako mezan. 1994an jaiotako umeak izango dira lehen aldiz Jauna hartuko dutenak. Elizkizuna berezia izango da ume horiendako: izan ere, eurek parte hartuko dute irakurgaiak eta otoitzak irakurriz eta eskaintzak eginez. Horren ondoren nork bere familiarekin ospatuko du.

Asentzio Eguna ekainaren 8an ospatuko da

Asentzioko erromeria ekainaren 8an ospatuko da aurten. Antolatzaileak prestakuntzak egiten hasiak dira, eta besteak beste dirua ateratzeko zozketa txartelak jarri dituzte salgai herriko tabernetan. Bestalde, udalak Urkulutik Asentzioko iturrira ura ekartzeko gestioak egin ditu eta egun horretarako lanak amaituta izatea espero dute.



Taldelana, partaidetza, alternatiba, gertutasunald

Lizarra Garazi da bidea.

Elkarrizketa, Suetena, Autodeterminazioa.

Pertsona guztiak, Proiektu guztiak, Ideia guztiak.

ARALAR

IRAKURLIAREN TXOKUA

GOBERNATZEKO KAPAZ?

Eduardo Zubiaurrek EAJ/EA koaliziorako botoa eskatuz zioen: ados dagoela Iban Arantzabalekin, "onenak lortu deixela botu gehixen eta kapaz izan deilla beste bi alderdixekin gobernatzeko". EAJ/EAn erakutsi duzue kapazitate hori: oposizio alderdia gobernu batzordetik bota duzue; ia beti, plenoko egunean jasotzen du oposizioak gaien informazioa, batzordeen esanari kasu gutxi... Lehen ez zarete kapaz izan eta ez dugu espero orain izatea.

Talde lana: pertsona bakarrari aginte osoa eman eta hari men egitea ez da talde lana.

Programa: galdetu diozue herriari gura duena?

Transparentzia: zenbatekoa da Udalaren zorpe-tzea? Norbera kontu eske joan behar da transparente izateko?

Eskabadorak, ipinitako bankuak, banatutako esku orriak, botatako muro edo margotutako aparkalekuak ez dira nahikoa izan hankasartzeak ahazteko: arau subsidiarioak herritarrekin kontatu gabe, Torrealdea etxebizitzarik gabe, Kantoi-kuan etxezarra, Espaloia zabaldu gabe, frontoia itoginekin, eta garrantzitsuena: Udalak inoiz ez dio herriari galdetu zer gura duen.

Botoa norberarena da. Herritarrek erabakiko dute dagoenarekin jarraitu edo aldatzeko sasoa den. Elgetako Aralar prest dago lan egiteko.

IBAN RETOLAZA
Aralarko 2. hautagaia

AIXOLAKO BIDEA

Aixolako urtegi inguruko pista konpontzen dihardute

I.A.

Joan den astean hasi zituzten Aixolako urtegiaren inguruko pista konpontzeko lanak. Eibarko, Ermuko eta Elgetako udalek sinatutako akordio baten bitartez, bidearen zati bat asfaltatuko dute eta bertan atsedenerako hainbat banku ipiniko dituzte.

Eibarko, Ermuko eta Elgetako alkateek Aixolako urtegia inguratzeko duen pista konpontzeko hitzarmena sinatu zuten maiatzaren 9an.

Behin tratua eginda, dagoeneko hasi dira lanak eta hilabete baino lehen amaituta egongo direla espero dute.

Ermutik Elgetarako noranzkoan ezkerreko pista asfaltatzea

izango da lan garrantzitsuena. Hain zuzen ere, alderdi horretan zati bat dagoeneko egina zegoen eta orain, Elgetara bidean dagoen errotarainoko zatia konpontzea da asmoa. Guztira, 1.185 metroko tartea asfaltatuko dute eta 3,5 metro zabal izango da. Bertan atsedenerako hainbat bankuak ipiniko dituzte. Gainera, baimekin ez duten autoak eta motoak ezin izango dira handik pasatu. Eskuinaldeko bidea, berriz, zabor legarrez konponduko dute eta bide bazterrak txukundu egingo dituzte.

Lanak, guztira, 156.181 euroko kostua izango dute. Aixolako urtegiaren kudeaketaz arduratzen den Ur Partzuergoak kopuruaren % 40 ordainduko du eta gainerakoa, berriz, hiru udalek (%20 udal bakoitzak), Elgetako

Udalari, hortaz, 31.236 euro ordaintzea dagokio.

Aixolako urtegi inguruko bidea jendeak paseorako eta korrika egiteko erabili ohi du. Azkenaldian pista horren egoerak txarrera egin duela ikusita, konpontzeko eskariak aurkeztu dituzte hiru herri horietako udal-letan, eta, herritarren eskaerak aintzat hartuta, konponketak lan-kidetzan egiteko erabakia hartu zuten Aixolako urtegiaren inguruan dauden hiru herrietako alkateek.

Lanak dagoeneko hasi direla jakinda, inguruko baserriarrei, lurjabeeri eta Aixolako urtegi-ko pistan ibiltzeko ohitura duten herritarrei eskatu nahi diete pazientzia izan dezatela obrak amaitu bitartean, ondoren euren onerako izango da-eta.

LABUR

Salgai daude egunkari berriari laguntzeko akzioak

Euskarazko egunkari berri bat lehenbailehen kale-ratzeko konpromisoa hartu zuten, *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutenean, bertako langileek. Guztira 5.000.000 euro behar dituzte komunikazio proiektu berria abian jartzeko, eta hori lortzeko guztion laguntza ezinbestekoa da. Dirua batzeko asmoz akzioak jarri dituzte salgai, 50 eta 300 eurokoak. Elgetan, guztira, 2.650 euro batu nahi dituzte akzioen bidez. *Egunkaria*-ren aldeko batzordeak herritarrei jakinarazi nahi die akzioak eskuratu nahi izanez gero euren zuzendu besterik ez dela egin behar. Bestalde, batzordeko kideek *Euskaldunon Egunkaria*-ren aldeko jai antolatzen dihardute, dirua batzeko helburuarekin.

ATREBENTZIA EZPADA/ Zer eskatuko zontsake hurrengo alkatiari?



MIREIA BERRIOZABAL
32 urte

Herriko sarrerako tunel-ian trafikua regulatzea, umiekin pasatzeko gaizki dago-eta. Asentzioko kolunpituak be konpondu biharko lirake.



PELLO LARREA
35 urte

Herri barruan semaforoak ipintzeko esango notsake. Trafiko arazuek daren batez be, herrixaren sarreran, katai aurreko pasabidian.



MARISOL ALBERDI
50 urte

Elgeta oso dago politto eta konforme nago dakagunakin. Baiña eskatze-kotan, ingurua zaintzeko esango notsake alkatiari, berde mantentzeko.



MIREN AMAIA OSORO
39 urte

Zerbitzu gehixago. Ez dakit alkatiari esku dagon, baiña autobus zerbitzuak eta denda gehixago ipintzeko esango notsake.




IMANOL JUARISTI
39 urte

Gaztiendako laguntasun haundixagua biharrezkua da. Musika taldiendako, esaterako, lokalak topatzeko laguntzia ematia eskatuko notsake.

aldaketa, gardentasuna

Boto
arduratsua





Patxi Basaurirekin

Elgeta beti aurrera.



Bozkatu eraginkor.



BERRIAK

Gertu-gertuko
informazioa

Egunero,

14:30ean eta 15:30ean

20:00etan, 21:00etan, 22:00etan eta 23:00etan


Aurkezleak:

Gorka Etxabe

Maidor Osa



Ikusiko
duzu!



M25 / ELGETARAKO EGITASMOAK



EAJ-EA

Saihesbideko lanak hasi nahi dituzte, eta Pagatza handitu

► **EKONOMIA**
Pagatza handitzea, industria berriak egitea eta hiriguneko jarduera industrialak mugitzea dira euren nahiak. Bestalde, ostalaritzari, merkataritzari eta turismoari lotutako jarduera berriak lagunduko dituzte.

► **ETXEBIZITZAK**
Etxebizitza eskaintza zabalaren alde egingo dute lan, etxe duinak eskainita, biztanle kopuruari eusteko eta gazteak erakartzeko.

► **HIRIGINTZA**
Hiriguneko zirkulazioa ekiditeko, saihesbidearen lehen fasea hasi eta Salvador kalea oinezkoendako gertatuko dute. Bestalde, herri garraioan ibarrarekiko gutxieneko zerbitzuak bermatzea izango da helburua.

► **GIZARTE ZERBITZUAK**
Eguneko zentroa abian jartzeko, dauden zerbitzu sozialak hobetzeko eta oztopo arkitektonikoak ezabatze asmoa dute.


► **KULTURA, AISIA, TURISMOA**
Espaloia Kafe Antzokiaren jarduna babestuko dute. Bestalde, Mendi Museoa ireki, eta mendi eta aisialdiguneak sortu eta zaindu nahi dituzte.

► **NEKAZARITZA**
Uriarte auzora ur edangarria eramateko egitasmoa.

► **EUSKARA**
Goiena egitasmoari laguntza ematea eta euskararen erabilera sustatzea dira asmo nagusiak.

► **GAZTERIA**
Gazte elkarteak lagundu eta aisialdiko jarduerak antolatuko dituzte.

► **KIROLA**
Pilotalekua berritzea da proiektu nagusia.



ELGETA AUZOLANIAN

Bideragarritasun ekonomikorako plana prestatuko lukete Udalerako

► **ENPLEGUA**
Industria mugatzea lukete helburu. Herriko enprekin harreman sarea sortzea litzateke beste asmo bat. Baita enpresa berriei herriko jendea kontratatze-ko baldintza jartzea ere.

► **ETXEBIZITZA**
Etxeak herriaren nortasuna galdu barik egitea proposatzen dute. Eta Torrealdeako etxe babes- tuak bultzatzearen eta nekazari lurak erabili baino gehiago, urbanizatu- takoetan eraikitzearen aldeko dira.

► **GIZARTEKINTZA**
Lana eta aberastasuna banatzeko neurriak hartuko lituzkete. Herri- rren segurtasuna bermatze- ko herri barruko zirkulazio seinaleak egokitzea eta oztopoak kentzea dute helburu. Hirugarren adinekoendako egoitza proposatzen dute.

► **EUSKARA, KULTURA, HEZKUNTZA**
Euskararen erabilera bultzatzeko UEMArekiko konpromisoa indartzea proposatzen dute. Kultura taldeen protagonismoa azpimarratzen dute eta irakaskuntzan 0 eta 3 urte arteko umeendako gela jartzea da euren nahia.

► **HAZIENDA**
Gaur egungo Udaleko arduradunen txostenean oinarrituz, bideragarritasun ekonomikorako plana prestatuko lukete, herriko diruak errealismoz banatze-ko eta gastu eta inbertsioak Udalak duen dirua- ren arabera egiteko.

► **UDAL FUNTZIONAMENDUA**
Udal demokratiko, parte- hartzaile eta gardenaren aldeko apustua egiten dute. Eragileekin azterketa sakona eginez, herritarrek nolako Elgeta nahi duten talde lanean erabakitze-ko.



PP

Bizi kalitatea hobetzeko konpromisoa hartuko dute

► **ENPLEGUA**
Gazteei, emakumeei, gutxituei eta 45 urtetik gorako langabeei laguntze-ko neurriak hartuko dituzte eta ekintzaile berriei laguntzak eskaini-ko dizkiete.

► **ETXEBIZITZAK**
Etxebizitza plana egitea proposatzen dute, diru sarrera txikien duten gizarteko taldeei erraztasu- nak emateko eta babestuta-ko etxebizitzak bultzatze-ko. Errentan hartze-ko etxebizitzaren aldeko politika egingo dute.

► **GIZARTE ZERBITZUAK**
Familien eta adinekoen bizi kalitatea hobetzeko konpromisoa hartuko dute. Familia ugarien aldeko politikak egitea, drogen aurkako orientazio kanpainak egitea, eta dependentzia egoera larrian daudenei laguntzea dira asmoak.

► **GAZTEAK**
Lanbide Heziketako programak bultzatuko dituzte; tolerantziaren, elkartasunaren eta zeregin publikoetan parte-hartze-aren gaineko sentsibilizazio ekimenak bultzatuko dituzte. Baita gazteen osasunarekin lotutako hainbat gairen gaineko informazio kanpainak ere.

► **KIROLAK**
Eskola arteko txapelketak indartzen saiatuko dira; guraso elkarteekin lankidetzan, eskolatik kanpoko kirol jarduerak bultzatuko dituzte; kirolaren betiko balioak bultzatuta eta gutxituei eta adinekoei kirola egiteko erraztasu- nak jarrita.

► **INGURUMENA**
Herriko naturaguneak zaintzeko neurriak hartu-ko dituzte, hain zuzen ere, bertako landare eta zuhaitzak landatuta.



PSE-EE

Kultura anitza eta parte- hartzailea bideratuko dute

► **ENPLEGUA**
Herria da enplegu politi- kak bultzatzeko gune egokiena PSE-EEren ustez. Gertutasunetik gazteak, emakumeak eta epe luzean langabezian daudenak lanean hasteko proiektuak ipini nahi dituzte abian.

► **ETXEBIZITZA**
Babes ofizialeko etxebi- tzen eta gazteendako alokairuko apartamentuen eraikuntza bultzatuko dute. Bestalde, ezindue- ndako, etxeetako sarrera- irteerak errazteko lagun- tzak emango dituzte.

► **GIZARTE ZERBITZUAK**
Adinekoendako etxez etxe-ko laguntza, bizile- kuak eta pentsiorik baxuenak osatuz zerbitzu sozialaren sarea hobetu nahi dute.

► **KULTURA ETA EUSKARA**
Kultura parte-hartzailea eta anitza eta euskararen erabilera bultzatuko dituzte. Bide batez, Infor- mazio Gizartea garatzeko eta haren onurak herritar guztiei helarazteko ahale- gina egingo dute.

► **INGURUMENA**
Aire, ur eta lurreko kutsadurari aurre egingo diote, zarata, argi, espazio publikoak betetzea, berdeguneak degradatzea, ur eta energia gehiegi erabiltzearen aurkako neurriak hartuta.

► **GAZTEDIA**
Gazteen arazo bakarra ez da aisialdia. Hortaz, Udaletik enplegu duina eta etxebizitza lortzeko laguntzak eskainiko dizkiete.

► **BERDINTASUNA**
Emakumeen aldeko diskriminazio positiboa bultzatuko dute, programa bereziak eta aholkularitza zerbitzuak eskainita, hain zuzen ere.



ARALAR

Erabakiak osoko bilkuran hartzea proposatzen dute

► **HIRIGINTZA, INGURUMENA**
Elgetarron bizi kalitatea hobetu eta jasateko moduko garapena bultzatuko dute. Etxebizitzaren arazoari aurre egiteko, babes ofizialeko etxeak, lokal baxuak etxe bihurtze-ko ordenantza eta alokairu publikoa proposatzen dituzte. Proiektuen artean, industrialdea handitzea, Irisgarritasun Plana, autoen lastertasuna murrizteko neurriak, eguneko zentroa, energia berriztagarriak eta garraio publikoa bultzatzea daude.

► **KULTURA**
Elkarteei protagonismoa emanaz, kultura parte- hartzailearen alde egingo dute. Proiektu garrantzi- tsuenak dira liburutegia informatizatzea, KZGune-ko ordutegia zabaltzea, gaztetxeak berritzea eta Espaloia Kafe Antzokia aurrera eramatea.

► **NEKAZARITZA**
Uriarte auzora ur erama- teko eta baserrietako bideak konpontzeko lan egingo dute.

► **KIROLA**
Dauden instalazioak ondo zaintzearen alde egingo dute. Frontoiko teilatua konpontzea da agintaldi honetako erronka nagusia.

► **HEZKUNTZA**
Haurtzaindegi eta jolastoki estaliari konponbidea topatzeko lan egingo dute.

► **UDAL FUNTZIONAMENDUA**
Gobernu batzordea alde batera laga eta erabakiak osoko bilkuran hartzea proposatzen dute. Baita batzordeak indartzea ere. Herritarrok Udalaren egoera ekonomikoa zein den jakiteko, auditoria ekonomikoa egin behar da. Zerbitzu hobea eskaintze-ko Udaleko langileen zereginak hobeto zehaztu behar dira.

ERRETRATUZAHARRA

ELGETA

On Pedro
Cresporen
ikasleak

Espaloian ateratako erretratu agertzen direnak 1960-61 ikasturtean eskola nazionalen On Pedro Crespo maisuarekin ikasitakoak dira. 7 eta 14 urte arteko mutikoak gela berean egoten ziren orduan. Argazkia gerran Francoren aldeko borrokan hildakoen omenez egin zuten monumentuaren aldamenean dago aterata, gaur egun Espaloia Kafe Antzokia dagoen tokian. Atzeko aldean zegoen eskola, eta gaur egun Elgetako umeez beste eraikin bat duten arren, eskola zaharra oraindik zutik dago.

Behoko ilaran jarrita (ezkerretik eskumara): Jose Antonio Oianguren, Jose Mari Olañeta, Alberto Sarasketa, Txomin Askasibar, Juan Luis Alberdi, Alberto Agirreazaldegia, Jose Ramon Arantzabal, Jorge Bolinaga eta Iñaki Etxeberria.

Bigarren ilaran: Juan Mari Alberdi, Angel Agirreazaldegia, Jose Ramon Arrazola, Jabier Elortza, Jose Luis Gorosabel, Jose Mari Iturriotz, Jose Inazio Erosarbe eta Bittor Juaristi.



Hirugarren ilaran: Juan Luis Arizmendiarieta, Inazio Basauri, Don Pedro Crespo (irakaslea), Felix Bolinaga, Migel Angel Alberdi, Juan Mari Arantzeta eta Juan Ramon Basauri.

Argazkia: Alberto Agirreazaldegia

ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

ELGETA

Frontoia
ixteko lanetan


Frontoi zaharreko paretak itxi zituzteneko argazkia da ezkerrekoa: auzolanean jardun zuten elgetarrak aldazio gainean adreiluak ipintzen. Eraikinak kanpoko itxurari berdin eutsi dion arren, garai bateko pilotalekua ekitaldietarako areto moduan egokitu zuten orduan.

Gaur egun ikuskizunak frontoi zaharretik gertu eraiki duten Espaloia Kafe Antzokian egiten dira.



1971

Eskola Nazionalak zeuden goiko partean eta azpian pilotalekua. Arkuak estali zituzten eta ikuskizunak egiteko aretoa gertatu.



2003


Eraikinak kanpoko itxurari eusten dion arren, gaur egun belarra dauka aurreko aldean eta atzean, berriz, etxeak eraiki dituzte.



Zumelaga
JATETXEA

62 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21



Manufacturas LARRAÑAGA
LAN-BABESERAKO ARTIKULUAK

Eskularruak: larruzkoak, lonazkoak, nitrilozkoak eta PVCzkoak • Polainak: larruzkoak • Amantalak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Mangitoak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Txanoak: lonazkoak eta skay-zkoak • Segurtasuneko oinetakoak • Entzumen-babesa eta begi-babesa • Soldatzaileendako aurpegirako babesa • Maskarak • Lunbalgiarako gerrikoak eta faxak • Hotzaren kontrako parkak • PVCzko trajeak • Soldatzaileendako larruzko jakak (3/4) • Lanerako arropa • Hotzaren kontrako txalekoak • Eta abar...

Leizeaga 1 BERGARA Tel. / faxa 943 76 59 53.



Jesus Mari
Garitano



Mila
Elortza



Mikel
Eguren



Maite
Guridi



Aitor
Goiti



Txema
Arenaza



Ibai
Rekondo



Mireia
Alberdi



Jose Mari
Etxaniz



Maite
Aristegi



Ana
Belastegi



Jon
Andueza



Amaia
Agirre



Jose Luis
Elkoro



Itsaso
Mendizabal



Peio
Garitano



Itsaso
Galarraga



Patxi
Osa



Ainhoa
Agirreazaldegi



Aitor
Bengoa



Tere
Guridi

- ✓ Euskal herritar guztien eskubideen alde Euskal Herri osoan.
- ✓ Autodeterminazioa eta benetako konponbidearen alde.

Domekan, Bergara Aurrera.

- ✓ Aznar, Garzon eta Mayor Orejari Bergaran ilegala nor den erakusteko.

Domekan, Bergara Aurrera.



PNV-EAren politika atzerakoi eta planifikazio gabearen aurrean:

- ✓ Etxebizitza politika eraginkor baten alde.
- ✓ Igerilekuen gaiari irtenbide orokorra emateko.
- ✓ Udalbiltza bultzatzeko.

Domekan, Bergara Aurrera.

BERGARA
aurrera!

1 euskal selekzioaren cd-rom jokoa



eskatu orain!

902 010 735
Telefona 24 orduz.

Imajina dezakezun guztia!



Egin ezazu zuk zeure hamaikakoa!




Aukera ezazu taktikarik egokiena



Jokatu: Munduko Txapelketa, Lagun arteko partiduak, sarean,...

Grafikorik onenak 3D-n Txilenak, erregateak, jaurtiketak, sarrera ikusgarriak, golen ospakizunak...
Giro-soinu aparta, Ikurrinak harmailetan...
Jokoaren estatistikak
Jokaldi onenen errepikapenak...
Lau futbol zelai aukeran.
Partiduak egunez, gauez, euriarekin...



euskal selekzioaren bufanda
Izakinak bukatu arte.

Zure etxean,
72 orduan
bidaltze
gasturik gabe



35,95 euro

Jokoa orain erosiz gero,
bufanda eta garraioa
DOAN